



ATAÑO

TXORI

TXORI

AUSPOA LIBURUTEGIA

(147)

1981

---

**Auspoa Liburutegia**  
**(EDITORIAL AUSPOA)**

**Plaza Santa María, 2 — Tolosa, Gipuzkoa**  
**Teléfono (943) 67 12 82**

ATAÑO

# TXORI

**AUSPOA LIBURUTEGIA**

1981

Azala: Le tour du monde, 1866.

IXXI

© Auspoa Liburutegia (Tolosa - Gipuzkoa)  
Inprimatzaille: Itxaropena, S. A. - Errikobarra kalea, 2 - Zarautz  
Depósito Legal: S. S. 75/81  
ISBN 84-7158-089-6  
Abril - 1981

## ARKIBIDEA

Itz bi ... ..	9
Su ondoko ipuiak ... ..	11
Eriotza ... ..	21
Ordu tristeak ... ..	29
Iges ... ..	41
Ostatuan ... ..	51
Agintari berritzeak ... ..	63
Bearra ... ..	73
Morroi ... ..	87
Joan-etorria ... ..	97
Neska-lapurrak ... ..	109
Arrobiko langillea ... ..	125
Urte betetzea ... ..	133

## ITZ BI

*Ataño*'ren beste liburu bat argitaratzen du gaur *Auspoa*'k. *Txantxangorri kantaria* izan zan lenengoa. *Txori* izeneko au dator ondoren.

*Txantxangorri kantaria* azaldu zanean, *Ataño* izengoiti ori noren estalgarri ote zan galdetu ziguten askok eta askok.

Gaurko liburu au plazaratu baño len, beraren izen-deiturak agertzeko baimena eskatu diogu *Ataño*'ri. Bai eman ere.

Salbador Zapiñain degu idazle au. Errenteri'ko Bordaxar baserrian jaio ta azia. Joxe Zapiñain bertsolaria zanaren semea. Kaputxinoetako Anai egin eta Ondarrabia'n, Amute'ko komentuan, bizi dana.

*Txantxangorri kantaria* liburuan, bere aitaren bizitza eman zigun. Gai ederra, noski. Bañan bai berak egoki eta dotore erabili ere.

Oraingo onetan, berriz, *Txori* esaten zioten mutil gazte baten gertaerak eta ibillerak eskein-

tzen dizkigu. Gai ori nundik duan, lenengo atalean ederki adierazten digu: txikitan su ondoan entzuna omen du, garai artan euskal sukaldeetan olako asko kontatzen zan eta.

Bañan iñork asmatua ez; Astigarraga, Ergobia eta Txoritokieta alde ortan gertatua omen da. *Txori* orrek zein zugaitzetatik zeleta egin zuan ere erakusten zuten. Neska-lapurrekin gertatu zitzaiona ere, alaxe kontatzen zuten. Lapurrak eta iltzalleak nor ziran, berak garbitu omen zuan azkenean. Eta bera, *Txori*, arritzeko modukoa omen zan indartsua.

Su ondoko gai ori zerbait ere jantzi egingo zuala, esan bearrik ez dago. Bañan nobelagillerik ospetsuenak ere, orrela idatzi oi dituzte askotan beren liburuak.

Au irakurritakoan, txikitan etxean entzundako beste ipui oietakoren batekin berdin egiteko eskatu genion guk *Ataño*'ri.

Artazuritzera zetorren jendearen aotik ere ipui ederrik entzuna dagoala erantzun zigun. Ploriaga'ko Iñazio zana eta Aitzondo'ko Joxe Martin zana-ta, ez omen ziran kontatzeko makalak. Gai mamitsurik bazala ipui oietan eta bearbada egingo zuala.

Elizan bezela, «ala izan dedilla, amen, amen» erantzun genion. Eta liburua bukatzean irakurleak ere berdin esango duala, ez degu dudarik egiten.

A. Z.



## SU ONDOKO IPUIAK

Baserrian jaio, azi ta an bertan bizi geranok, baserri oetako berri ondo ikasiak gaituk.

Udara aldean izerdia ausarki, ler bearra, eguarte luzeak izaten dizkigu, Arratsaldeak ez motxagoak noski. Oek ez dituk su ondorako garaiak. Nekatuak etortzen gaituk. Etzeukak jendeak ipuirik kontatu ta entzuteko astirik. Gogo aundirik ere ez noski ortarako. Al duen azkarrena, bere atsedeen pixarra artzera joango dekanekazaria, goizean goiz berriro lanari eraso bearra daukala bai baitaki.

Neguan, ordea, egunaren argia ia erdiraño jexten dek. Illuna luzatu, berriz. Esaera zarrak dionez, Ama Birjiña abenduko, argitu orduko illunduko. Oek dituk benetan, oek, su ondorako garaiak. Aitonak edo amonak orduan jalkitzen zizkitek, gaur arte aoz-ao iraun duten ipui ta bertso zarrak geienak.

Bai. Gu txikiak giñanean, neguko arrats luze aietan, argitu orduko illuntzen zuen illabete

aietan, ia berotzen etzuen eguzkia mendi atzean ezkututzen zaneke, onek ukatzen zien beroa su ondoan arkitu nairik, eguzkiari zear begiratuka urbiltzen itun xarrak sukalkokora, su ondora.

Gure tranpak, txolarteak eta beste jolasak utzirik, laxterka joaten giñun gu ere su ondora. Ez otzak izututa. Gazteak odol beroak zeuzkak eta bazekik otzari nola gogor egin. Gure aiton bedeinkatu aren ipuiak entzuteko zoramenez uzten genizkin ume-jolas guziak. Ura uan gure arratseroko atsegiña eta ez genin iñolaz ere galdu nai izaten.

Amaika gizaldi igarotako sukalde xar aren barrua. Orduan ere iru gizaldi bizi giñun batera: billobok, gure gurasoak eta aiton-amonak. Sukalde txikiegia ainbesteko sallarentzat, amabitaraño irixten giñun ta.

Bazirudik zan bezelakoxea ikusten detala oraindik ere nere irudimenean gure sukalde be-teegi ura.

Atetik sartuta, aurreko ormari erantsia zeukaken sutondoa edo sutokia. Lurretik metro ta erdi inguru xamar bere tximini zabalaren asiera, zabaletik estuagotzen tellatu gañera igo bitarte, andik igaro zedin suaren kea.

Aizea zebillenean, batez ere egoa, tximinian beera zurrunbulloan sartzen zitzaiguken aizea, aizearekin batera kanpora zijoan kea bertiro sukaldera biurtuz. Bere mintasunak begiak erreta, amaika negar egiñak gaituk. Amona gaixoak ere bai amaika doministiku.

Tximini barruan, orma batetik bestera, erdi-erdian trabeska, burni-ziri bat, bost edo sei mallako kate bat zintzilik zuela. Kate ontatik, laratza. Orregatik kateak zeuzkaken malla bat baño geiago: nai zan neurrian laratza jartzeko.

Orma ondoan, au babes zuela, su-burnia. Burni astun bat uan ori. Askotan, gori-gori egiña egoten uan. Suaren beste bi bazterretan, beste bi burni: auntzak. Eta denen atzean beste burni bat, atze-burnia, su-tokiak lauki bat osatzen zuela. Or egiten ziteken sua.

Mozkorra izeneko enbor aundi bat jartzen ziteken su-buru bezela. Ia beti, erre arte sutan egoten zan enborra uan au. Onek suari eusten ziokeen.

Gañetik, tximiniak apal aundi bat zeukaken, marrazkiz betetako paper zintzilikario batzuekin apaindua. Bere gañean, kobrezko pertza aundi batzuek. Txerria iltzean, odolkiak egosteko izaten omen itun. Beti txukun ta dizdiratsu edukitzen zizkiteken.

Iru leio zizkin gure sukalde xarrak, bazterretan iru txiki eta erdian aundiagoko bat, sukalde argitu zedin. Leio aundi ortan labetxo bat ere bazeukaken, egurrezko ikatzez su egiten zana. Gure amak kaxuelkada ederrik maneatzin zin emen.

Bi su oen erdian gatz-ontzia zegoken, sutatik tirabidean. Orman sartutako lurrezko ontzi bat uan gatz-ontzi ori.

Bazter batean, sukaldera sartu ta eskubitara, ieio txiki baten aurrean, arraska, ontziak-eta garbitzeko lekua. Bere gañean, apal txiki bat, ontziak txukatzeke.

Arraskaren ondoan, eskubiko ormaren bazterrean, armario aundi bat, sukaldean bear ziran gauzak edukitzeko. Onen gañean, berriz, beste apal aundi bat, lau edo bost mallakoa, paper apain ta dotorez jantzia. Emen egoten itun, sukaldean iñoizka bear ziran ontzirik geienak. Eta armario onen txokoa, oregiñako aska edo maira.

Sukalde txikia uan eta, leku geiago uzteko, orman lotuta zeukaken maia, nai zanean igo ta jexteko.

Aitonak egiten zitun silla koxkor bana genin bakoitzak, eta, kanpotarrrik etortzen zanean, goitik ekartzen genizkin bear ziranak. Ez uan sukaldean geiagorentzat lekurik.

Sukalde guzia argitzen zuela, petroliozko krisallu txiki bat argi-mutil gañean.

Atariko atea ederki artzen zuen kristalezko txulo txiki bat ere bazin sukaldeak, ataritik norbaitek deitzen zuenean nor zan ezagutzeko.

Ezkerreko ormatik txintxilik, an egoten itun pistoizko eskupeta batzuk. Beren ondoan, bi adar, polbora ta perdigoiz beteak.

Olakoxea uan orduan gure sukalde xarra. Gaur dena, aurrerapenari jarraituz, berritua zegok. Etzeukak lengo itxurik. Ondotxoaz aundia goa dek gañera.

Gure sukalde xarra, amaika poz, atsegin ta amets goxoen txokoa. Baña bai amaika oñaze, naigabe ta negarren lekua ere. Batzutan zerua, bestetan inpernua. Amaika buru-auste ikusitako sutondoa. Ez diagu kontatzen ari bearrik. Ur ontan pasea dagonak, bazekik zer dan sendi eder bat azitzea. Ez genin geiegi eskatzen, baña askotan bear-bearrezkoak ezin iritxi izaten itun dantontzat.

Trastez betetako sukalde txiki oen barruan igarotzen genizkin guk lasai asko neguko arrats luzeak, eta orduan ikasi genizkin Euskalerrriak zear zebiltzan ipuirik geienak.

Zalapartaka urbilduko giñun, bada, gure sukalde txikira. An egongo uan aitona patxara ederrean. Bai, ordea, amona ere erne asko:

— Ea, mutillak, eseri ta ixo.

Lenengo, errosarioa errezatuko genin. Oitura eder au bauan. Gaur oraindik ere ez dek galdu. Serio asko gañera. Ortan amona uan txorrotxena. Amaika zear-begiratu egingo ziguken, bera uan esaten zuena ere ta.

Otoitza bukatu ordurako, bakoitzak bere aulkitxoa artuko zin, ez beste iñorena. Bakoitzari bere neurrira egiten zioken aitonak aulkitxoa eta ondo zaindu bearra geneukaken. Kontuz besterenik artu. Laxterka ta ixkanbillaka urbilduko giñun denok su ondora, aitonaren aldamenera.

Mutil koxkorroq, bere igeltsuzko pipa ortzetan, joandako oroitzak ausnartzen ari zan aito-

na zirikatzen asten giñun bereala. Agiñen baten gañean lo somatzen duten ontz aundia txoriak bezela, aizkatzen genin guk ere erdi lo zorroan zegon aitona maitea. Denok batera erasoko genioken:

— Aitona, ez al dezu gaur ipuirik?

Bere lurrezko pipa eskuan artuz eta arnas luze bat egiñik:

— Bai. Ortarakoxe maite dezute zuek aitona: ipuiak kontatzeko. Beste gañerakoan, aitona-rengatik ajola dizute zuei, bizi zaizutenik ere etzerate oroitzen eta. Baña zuek bai, asko maite zaituzte aitonak, eta, onak izatekotan, kontatuko dizuet gaur bat oso pollita, gure gaztetan gertatua. Gogor xamarra, baña egi-egia. Zuen aitona ez dik beñere gezurrik esaten. Zuek ere, kutun oik, ez oitura txar ori artu, gezurtirik ez dik iñork maite ta.

Eta, ipuia asi aurretik, billoba bakoitzari bere zer egiña agintzen asiko uan, betiko oitura ori zuen ezkeror:

— Aizak, Pillipe: ekatzak txarrokada bat sagardo. Ik, Joxe, ekaitzik danboliña ta gaztañak.

Gaztañ erretzea beti aitona-ren lana uan, berak bestek ez omen zekiken etxean gaztañak ondo erretzen eta.

Txarro sagardoa bazter batean utziko zin, toki seguruan, umeren batek uste gabean etzezan irauli. Baña bere tirabidean, zutitu gabe eskuarekin aixa arrapatzeko moduan.

Danboliña lurrean atez gora jarriko zin. Zabaldu ta atearen bi aldeetatik jarriko zizkioken aitonak bere atzapar aundi aiek, sartzerakoan saskitxotik etzedin gaztañik lurrera erori. Atea itxi ta su gañean jarriko zin laratzetik danbolin xarra txintxilik.

— Aizak, Joxe —ura uan bere billobarik zarena—. Artzak eure aulki txiki ori eta eragiok danboliñari kontuz-kontuz, ik ondo dakiken bezela, ortan iaioa aiz ta.

Lore txiki ori beti botako zioken, kontentu ari zedin, gure berri ondo bazekiken-ta.

Denok bere ondoan eseriko giñun, bakoitzak al zuen bezela ta al zuen lekuan. Txikiena ez. Txikiena jostari bere belaunetan artuko zin eta, kirrink eta karrank danboliñaren otsera, asiko zin ipuia.

Gaztañak geiegi erre etzitezen, bere jardunean atsedeen pixka bat artuz, ala esango zioken beste billobari:

— Aizak, Iñaxio: ekatzak krisallu aundi ori, ikusi ditzagun ea gaztañak bere puntuan dauden, atzo ere geiegi erre genizkin ta. Nik ez baitzeukat zuek bezelako agin eta ortzik erreegiak jateko, gogortu egiten dituk eta.

Danboliña suaren gañetik baztertu eta, atea zabalduz, aleren batzuek aterako zizkin, eta bat edo bi jan ondoren:

— Oraindik etzeudek beren puntuan. Buelten batzuek geiago emaizkiok.

Atea itxi, danboliña su gañean jarri, txarro sagardotik txurrupe bat egingo zin, eta, ots batzuek atereaz eztarria garbitu ondoren, jarraituko zin bere kontuan. Bereala aginduko zioken berriro gaztañ-erretzalleari:

— Atera zak su gañetik danbolin ori eta ekatzak zumitzezko saski txiki ura.

Saski txiki artara aterako zizkin gaztañ erreak. Sagardo pitin bat gañetik bota. Zaku batekin ondo estaliz, polliki-polliki zanpatuko zizkin eta kontu-kontuz su ondoko beroan jarri, apal ordurarte oztu etzitezen.

Aitonak bere arratseroko eginkizuna bete zin: gaztañak erre, bere kontuan lasai jarraitzeko.

Amona, berriz, arpegi ximur, adiñean sartua izanagatik, arra baño geiago geratzen etzan emakumea uan. Mairan arto-iriña oretu ondoren, zenbateko taloak egin asmatzeko bere esku-txuloa zin neurria. Zenbat talo, ainbeste ore-opil egingo zizkin. Aitonak, zirikatzaile, askotan esan ere bai:

— Auxe batere ez talo. Izan ere, esku txiki oiekin zer neurri artuko dezu zuk?

Bai amonak ere, irri maltzur bat egiñaz, txorrotx asko erantzun:

— Zure aundi oiekin neurtzezkeroz, denakin bat ez nuke egingo. Etzaitugu goseak il eraziko. Geiago bear badituzu ere, badira geiago.

Talo-olaren gañean zapi txuri bat zabalduko zin lenengo, eta onen gañera irin pixar bat ixuri,



orerik zapitxoan ez erantsitzeko. Ore-opillaren gañera ere ixuriko zin beste apurtxo bat, orerik eskuan ez erantsitzeko, eta, esku txabalarekin joaz-joaz, jarriko zin taloa erretzeko nai zuen neurrian, eta lendik su gañean erretzen zeukanari, talo-burnia artuz buelta emango ziokeen. Errez gora jarri eta erre gabeko aldea burni goriaren gañera irauli. Atze-burnian jarriko zizkin talo-burnitik ustez erreta ateratakoak, su aldetik erdi etzanean, geiago erre ta aizatu zitezen. Ondo erreko badira, taloak aizatu egin bear omen dittek. Bear bezela erreta zeudenak, berriz, auts edo kedar puskarik bazeukaten, ondo garbitu ta burniaren bazter batean pillatu, gaztañak bezela aiek ere apal ordurarte bero-beroak iraun zezaten. Amonak orrela jardungo zin denak erre arte.

Sendiko jana jartzearen gora-bera, amonaren esku zegoken oraindik, bixta laburtu zitzaion ezkerro josteari utzi ziokeen ta. Txukun askoa uan gure amona. Bere lanean jardunagatik, aitonaren ezpañetatik goxo-goxo eta geldi-geldi jalkitzen ziran ipuiak entzuten erne asko beti. Inoiz, galdera txorrotxak egiteko ere artzen zin beta.

Gure ama, berriz, pazientzi osoan, guk mutil koxkorrok amaren nekeari asko begiratu gabe austen genitun arropa ajatuak ezin konpondurik, aria ortzakin ebakitzen zuela eta beatz artean biribildu ta korapilloa aterez, bati botoia jarri, besteari zarrataren bat josi edo adabaki txikiren bat ipiñi.

Baña ura ere geldi-geldi, aitonak ari zuen ipuiaren itzik galdu gabe entzun nairik. Nork ze-

kiken, berak ere, amontzen zanean, bere billoba-  
txoen erdian ez ote zuen berdin ari bearko?

Aita ere, aulki baten gañean laia ortzaz au-  
rrera jarri; onen gañean zaku bat ondo tolestatu-  
ta, eseritzean miñik ar etzezan. Bere gañean ese-  
ri bearko zin, lairik mugitu etzedin. Onen or-  
tzen azpian gaitzeru bat, orduko neurria, eta laia-  
ren ertz bizi batean bi eskuakin arta-buru bat  
gora-beraka ibilli zapalduz eta laiaren kontra es-  
tutuz, arto aletzen ariko uan, eierara eramateko  
asmoan. Gaitzerua bete alean, zaku batera ustü,  
gaitzeruak zenbatuz ua uan bere neurria ta.

Denak lanean eta krisallu baten argira, buru  
ta biotz bat bezela bat egiñak, aitonaren ipuiak  
entzuten, ordu atsegiña igarotzen genin.

Euskalerriko esaera zar ta ipui guziak olaxe  
zarretatik gazteetara aoz-ao bizi-bizirik gaur arte  
iraun ditek. Orain aztuta dauden bertso zar ede-  
rrik entzuten genin aren ezpañetatik. Zenbat al-  
diz aiton-amonak, batek bertso bat, besteak bes-  
tea, etziran aritzen. Euskalerrian aoz ao zebiltzan  
guziak bazekizkitekzen aiek buruz.

Gaur irrati ta telebistak gurea ez dan mundu  
bat sartu zigutek sukaldera, lengo gure euskal  
arnasa moztuz.

Egin zanetik orain arteko gure sukalde xar  
onen kondaira idatzirik balego, arrituta geratuko  
giñukek.

## ERIoTZA

Burni-obi baten inguru xamar, bai omen uan erdi ardangela erdi ostatu zan etxe baldar bat.

Etxe atzean, legorpe txiki bat ostatuari erantsia. Ukullu bezela zeukateken ura. Iru edo lau beiren lekua. Erri-burutik urruti xamar omen zegoken eta leku basatia gañera. Urbilleneko baserria ere urrun. Orregatik, ostatuan bear zan esnea sortzeko zeukateken bei ale aiek, ia beti larrean mantentzen ziranak. Goizean jetzi eta atera; illunabarrean bildu.

Ardangela ez-ezik, lau bat apupilloren lekua ere bazeukateken eta beti betea edukitzen ziteken. Burni-lanean ari ziranak, batzuak urrunekoak itun eta an bizitzen itun. Ez uan ostatu eder oietakoa. An zebillen jendearentzat bearrik ere ez.

Senar-emazte gazte batzuek zeukateken, eta etxea berena ziteken gañera. Bost seme-alaba gaz-

te eta Erramona, neskazar bat sukalde zai, ez zar, ez gazte; bitartekoa.

Bigarren semea, Txori izengoitiz deitzen ziotena, mutil bikaña bere amabost urterekin, au ziteken beien kargua zeramana. Onek jetzi ta zaintzen zizkin larrean.

Beti txori-kabi arrapatzen ibiltzen zalako, denak Txori deitzen zioteken. Bere gurasoak ere bai. Au dek ipui oni izen ematen dion mutil gazte azkarra.

Joxe ta Antoni itun, bada, ipuiak dionez, orduan ostatuaren jabe ziranak eta berak zeramateken ostatuko gora-bera.

Nere txikitan oraindik txutik zegoken, ta ostatu bezela, eta, eizera joaten giñanean, amaika merienda-lege egiñak gaituk. Amaika pote zar zulatu ere bai, jaten genduna nork ordaindu jokatuta. Baña beste sendi baten mende zegoken ordurako mendi-ostatua.

Burni-obiak porrot egin zuenean, ostatuak ere laxter egin zin. Baña gaur oraindik ere bizi dek baserri bezela.

Burni-obia bizi zan arte edo irabazia zeukan arte, ostatua ere ondo zebileken. Eta Gipuzkoa eta Nafarroa aldera zetorren jendearentzat oso tirabidean baitzan, tratalariak oso maitea ziteken.

Kontrabandistak, berriz, zer esanik ez. Naiz Nafarroa ta Gipuzkoa'ren artean, ardoa ere kontrabandoan ekartzen baitzan; eta, naiz prantzese-kin, artu-eman aundia zebileken orduan, eta askotan ostatuan egiten zizkiteken beren billerak.

Ostatu-jabeak onak eta maitagarriak itun eta oso modu onean ematen ziteken, gauzik geienak kontrabandoan ekartzen baitzituzten.

Erri-agintariak bazekiteken ori. Baña berak ere joera aundia ziteken, eta, bestetan baño merkexego nola ematen baitzuten, denentzat ederki zetorreken ostatu ori.

Baña etxeak etzeukaken izen ona. Ostatura joaten ziranen artean, egundoko lapurretak egiten zizkiteken. Lapurrak etzin beñere kolpe utsik egiten, eta ezin ziteken arrapatu.

Andik errirako bideak tunel-zulo bat zirudiken, dena zugaitzpean estalia, eta lapur-bidea esaten zioteken.

Amaika bider inguruko baserritarrak egiten ziteken guardi. Baña lapurrak ederki asmatzen zin, aiek an etzeuden ordua.

Askotan lotu ziteken Joxe, etxeko nagusia. Iñork jakitezkeroz, arek jakin bear zuela nork zebilkin dirua eta lapurra bera zalakoan. Baña lapurtutakoak berak salbatzen ziteken: bi erteten zirala, eta Joxe baño txikiagoak, eta arpegi estaliarekin. Ezagunak baziran ere, orrela ezin ezagutu.

Beti beldurrak bizi itun eta, ostatua beste bati salduta, aldegiteko zoratzen. Baña lapurrik arrapatzen etzuten bitartean, etzin iñork ostatuaren jabe egin nai, alkateak ezik; baña etzioteken ari saldu nai.

Illunabar batean ala esan zioken Txorik amari:

— Ama: zugaitz aundi batean, beko errekan, mika-kabi bat dago eta uraxe arrapatu nai nuke.

— Euri egin berri ta garai ontan —esan ziokeen amak izutua— erori ta or geratuko aiz lepezurra autsita.

— Txori ere ilko da, ama, baña ez zugaitzetik erorita.

— Eta intxixuak arrapatzen ba au?

Intxixua esaten zioteken lapurrari, iñork ezin arrapatu zuelako.

— Emen dabillena ez da intxixua, ez. Bi ankeko gizona ta ez oso urrutikoa. Gure ostatuan maiz anka sartzen duena da ori. Nor baita ere, naiago nuke ikusiko banu. Apustu egingo nuke ezaguna izan baietz —erantzun ziokeen Txorik.

Txori joan uan ta urduri ta naigabetan geratu uan ama, eroriko gaixtoren batean lepoa autsiko zuen beldurrak.

Txori, oitura zuen bezela, igo uan aritz aundi batera, mikaren kabia bigaramoneko utzita orma-txorienak ostutzera, lapur-bidearen ondo-ondoan.

Kabiaren aitzakia jarri ziokeen amari Txorik; baña ostatuan ibillera estrañu batzuk nabaitu zizkin eta bazeramaken zerbaiten zalantza. Amari ixilik gorde bazion ere, ez uan ezeren susmurrik gabe jetxi erre kara. Len ere alakoetan izaten omen itun lapurretak. Txorik bai baitzekin ostatuan zelatari egiten, eta ikusi-mukusin joan uan ara. Gazte xamarra uan, baña buru argikoa,

eta untzez betetako aritz batetik begira jarri uan.

Ia biotzak esaten ziona, erdiz-erdi gertatu zitzaiokeen. Txaratik beera jexten ikusi zizkin bi gizon arpegi estaliarekin, eta, beera zegon lekutik sei metro baño alderago, sasi-mordoska baten atzean geratu itun, biak ezkutuan, norbaiten zai.

— Orra gure lapurrak, gure intxixuak. Jendeak arrazoi zin, bai: lapurrak bi zirala, ez bakarra.

Baña berak ezer egiterik ez. Sei metrora zeuzkaken biak eta, jexten asten bazan, ikusiko ziteken. Bestela, ostatuko jendeari dei egin eta bertan arrapatuko zizkitek.

Zer ikusi, ixil-ixilik bertan geratu uan, aiek aldegiten zuten arte.

Ordu-laurden bat geroxeago, ikusi zin ostatutik lapur-bidean beera, tratalari bezela ezagutzen zuten gizon aundi bat, Pelix, gorosti-makil dotorea eskuan zekarrela, txistu ta kantu, intxixuak zai zeuzkan bidetxigorrean beera.

— Deabru oiek orren zai egongo dituk.

Beti diru askorekin zebillen tratalaria baitzan.

Beren parera zaneko, aurrera erten zitzaizkioken.

— *¡Alto! ¡La bolsa o la vida!* —esan zioteken, zeraman bidea ixten ziotela.

Bidetxigor estu bat uan eta etzegoken saietsetara iges egiterik. Baña Pelix mutilzar bikaña uan, sasoikoa, aundi ta indartsua. Izutu ta amor eman bearrean, aurpegi eman zieken eta igesbiderik etzutela utzi zizkin gure bi intxixuak. Bidetxigor itxia nola baitzan, aurrera egiten bazuten, alderik-alde josiko zin aurretik zetorrena, zeraman makillaren burnizko mutur zorrotz arekin. Igesari ematen bazioten, berriz, orduan atzetik.

Irurak itun an larri. Lapurrak, bi izanagatik, ez itun, ez, esku utsik joanak, eta, igesbiderik gabe aren mende geratu ziranean, batek pistola txiki bat atera zin ta bi tiro eman zizkioken. Erreka-zulotik gora erten uan oiartzuna. Pelix, bi eskuakin bularrari elduz, muturka erori uan, oiuz:

— Xarde madarikatua! I al aiz emengo lapurra? —eta ixildu uan betiko.

Joxek, goiko ostatutik entzun da esan ere bai bere lagunei:

— Ez al ziran bi tiro oiek, beko erreka-zuloan?

— Bai; nonbait lapur-bidean ziran tiro oiek.

— Txori mika arrapatzera ara joana da, bada.

— Pelix tratalariak ere an bear zuen.

— Txori etortzean, ikusiko degu zer esaten digun.

Bai. Txorik dena ikusi zin eta oiuz egin ere bai zugaitz gañetik:



— Urdeak aleenak, orren aixa gizona iltzeko!

Lapurrak arpegi estaliarekin joan itun eta Txorik etzizkin ezagutu. Baña bai bat xardea zala; eskubiko beatz aundia bi azkazaletan bukatzen zala eta bigarrenak erren pixar bat egiten zuela, eta ezker aldera gañera.

Baña lapurrak erdiz-erdi ikusi ziteken Txori egoaidera, miura tartean. Baña ez ikusia egin ta Pelixen diruak artuz, tximistak egiñaz bidetxigorrean gora artu ziteken, tiroen otsera jendea azalduko zan beldurrak, bai baizekiten arpegi estaliarekin etzitula ezagutu, Txori ostatura baño len aren lanak egingo zituztela ta.

Damutu uan benetan Txori oiua egiña, eta etzin ametsik egiten bazterren batean garbituko zutela. Bai baitzekin iltzalleak ederki ikusi zutela eta, ostatura joaten ziranak baziran, ezagutuko zutela. Ezin eraman izan zin ain odol otzean gizona il ta lapurtzea. Eta orra lapurrak ikusi.

Urte gutxi edukiagatik ere, mutil ergela ez uan, ordea, Txori; eta igerri zioken bidean jarriko zitzaizkiola eta, al izan ezkerro, ostatura baño len ilko zutela. Arek ere maite zin bizia eta iges egitea pentsatu zin.

Iltzalleak ezkutatu ziraneko, jetxi eta lapurren atzetik ixil-ixilik joan uan orpoz-orpo.

Erreka ondoan zegon txabol txiki batean utzi zizkiteken beren trasteak, eta laxterka batean ostatu aldera artu ziteken. Baña, sartu gabe, in-

guruan gorde itun. Beren atzetik laxterka joan baitzan Txori ere, an ikusi zizkin eta onela esan:

— Orra beldur nuena. Zein diran etzekit. Baña nere ezagunak izango dituk. Bestela ez itun neri sarrera galeraztera etorriko.

Txorik, nor izan balitz, an bertan galduko zizkin aiek biak. Baña amabost urte edukiagatik, malezi gutxikoa oraindik eta igesari eman zio-ken.

Bere gurasoak ere arritzen itun, garai aietan Txoririk ez azaltzea. Bi tiro ere entzun zizkitek-ken, bañan zergatik tireak ziran etzekiteken. Agian eiztariren baten lana izango uan. Urduri geratu itun; baña ez itun joaten ausartu. Bada ez bada ere, goizerako utzi ziteken.

Gau guzian bi iltzalleak Txoriren zai egonak itun. Baña etziteken iñon ere ikusi. Beste txulo-  
ren batetik etxean sartu zitzaielakoan, urduri xamar goizean joan itun etxera. Baña arpegi es-  
taliarekin etzitula ezagutuko noski. Alare arritzen itun gau guzian aien bistara ez azaltzea. Itxura txarra artu zioteken orri. Zeleta egin ziela, ale-  
gia.

Alare, beti bezela igande-arratsaldero eta or-  
du berean etortzen itun andik aurrera bi lapurrak ostatura. Baña etzeudeken Txoriz aztuta, ura noiz azalduko zai, iltzeko.

## ORDU TRISTEAK

Beti bezela azaldu zin eguna. Bereala eguzkiak laztandu zin ostatuaren aurpegia. Baña ez beti bezin goxoa. Zerbait bear etzuna gertatzen uan.

Goizero bezela, ain txintxo ukulluko lanak egitera txistu ta kantu jexten zan Txori alai ez uan ageri. Bere betiko orduan iñork etzin nabaitu. Zer gertatzen ote zitzaion?

— Txori gaixo ote dago? —galdetu zioken Joxek andreari.

— Ori ez dakit. Baña gaixo badago ere, ez da gure etxean egongo. Bart ez da emen Txoririk azaldu.

— Bada ez bada, ikusi zazu, ixil asko leio-tik sartzen ta erteten oitua dago ta.

Antonik, joan ta polliki-polliki jo zin atea, baña etzeturreken erantzunik. Sartu uan ta oia ukuitu gabea zegoken. Bere soñeko ta oñetakorik onenak gelan an zeudeken betiko lekuan.

Txori, dena zegon bezela utzita, illa edo igesi egiña uan. An etzegoken beintzat. Arratsalde erdira ezkeru, ez uan ostatuan azaldu.

— An ez dago Txoririk. Bere puska guziak betiko lekuan daude. Dena dagon bezela utzita, eroria edo aldegiña da norabait. Mika-kabi bat beko errekan bazegola ta uraxe arrapatu nai zuela esanta joana da emendik.

— Arek ez du egundaño olakorik egin ta eroria izango da.

— Atzo illunbistako tiro aiek etzitzaizkidan neri eiztariarenak iruditu.

— Bueltaxka bat egingo det, ea aztarrenik arkitzen detan.

Lapur-bidean bera zijoala, urruti xamarretik ikusi zin norbait bazegola an etzanda.

— Ai, Txori, Txori, nere seme maitea! —naigabez zioken berekiko—. Azkenean, ere burua galdu dek.

Urbildu alean, igertzen zioken etzala ura Txori. Aundiagoa iruditzen zitzaiokeen. Ez Txori ibiltzen zan bezela jantzia. Tratalarien blusa beltz aundi oietakoa zeramakiken.

Bertara zanean, ezagutu zin nor zan: Pelix tratalaria, bere adiskideenetako bat. Bezperan alkarrekin meriendatu ziteken ta auxe gure izatearen ezereza! Ain alai laxter arte esanta agurtu zan lagun maite ura, gorputz.

— Ontzako urrez zamatua ziaken gizarajoa. Dirua nork daraman, nola jakiten ote ditek la-

purrak? Laxter ixtilluak izango dituk gure ostatuan.

Eskerrak lekukoak bazitula. Iru edo lau lagun ostatuan zeudeken. Etzin ukuitu ere. Ori epailleak egingo zin.

Baña Txoriren aztarrenik ere etzin atera eta beldur gaixto batek lotu zioken biotza: lapurrak illa ez ote zan gero egongo bazterren batean Txori?

Naigabetua, zapaldua, eroria, zer pentsatu etzekila, etorri uan ostatura. Emazteak laxter antzeman zioken, Joxek zerbait gaixto ikusi zuela.

— Ez al da Txoriren aztarrenik? —galdetu zioken andreak.

— Ez. Txoriren aztarrenik ez da ageri. Baña laxter etorriko zaigu eraso.

— Zer gertatzen da, bada?

— Atzo gurekin ain alai meriendatu zuen Pelix gizarajoa, erreka ondoan zerraldo auspezka eroria, gorputz arkitu det.

— Ezin litekena da ori, mutilzar gizarajo ura orren errex iltzea.

— Naiago nuke nere ametsa balitz. Pelix ez du gaitzak il. Odol-putzuan an dago etzana. Egundoko diru-putzua zeraman arek. Zein deabru ote degu, emen gure artean dabillena? Ura Irun'dik etorria zan, eta ez det uste onera artean iñon sartu zanik. Lapurrak nondik ikasten ote du ori?

— Eta nora jo bear degu orain?

— Iñora ez. Ez jakiña egin, berdin zeñek aipatua izango degu laxter ta.

— Txoriri, berriz, zer gertatu ote zaio?

— Beldurrak aidean nauka orrek, ez ote degun seme maite ori geiago gure begien aurrean ikusiko.

— An eroria ez badago, zergatik ez?

— Txori ara joan ta bereala zan an Pelix, eta arek nai ta nai ez ikusi bear zuen. Edo iges egin du edo arrapatu ta il egin dute lapurrak. Pelixek, tiroz illa dagola dirudi; eta Txori ere, zaulia izanagatik, balak arrapatuko zuten.

Ixil-ixilik, senar-emazteak beren lanean jardun ziteken.

Andik ordu bete inguru, aizun-aizun an azaldu uan, soñekoak urratzera baletor bezela, erriko alkatea.

Joxe, ukulluko lanak eginta, baratzan ari uan laian.

Antoni, berriz, bere seme-alabakin ostatua garbitu ta antolatzen, igandea uan ta.

— Egun on, Joxe —esan zioken alkateak.

— Egun on, alkate jauna. Mendi alde oetan goiz abil.

— Ez al dakik zer gertatzen dan?

— Ik ez badidak esaten... —ez jakiña egin zin Joxek.

— Pelix tratalaria illa arkitu diagu beko errekan.

Joxek, beldur-itxurak egiñez:

— Ziur al ago Pelix dala?

— Bai, bai. Nik Pelix ondo ezagutzen dit, eta nere begiakin oraintxe ikusi dit illa. Emakume batek berakoan billatuta esan ziguk. Besteren bat ote dan beldurak al ago-edo?

— Atzo, arratsalde erdi alde ortan, joan uan Txori, mika-kabi bat arrapatu nairik. Illuntzearekin batean bi tiro entzun genizkin eta ez dek emen Txoririk azaldu. Bueltaxka bat egiteko asmoan niñun. Ez uan ondo ezagutuko. Ezin litekena dek ori. Atzo alkarrekin meriendatu genin ta txoria baño alaiago joan uan.

— Etzaidak adarrik jo, Joxe. Ez ote dit nik Pelix ezagutzen? Nere lagunik maiteenetako bat uan bera ta. Auspez eroria zegok eta tiroz illa. Zein madarikatu ote dabil emen, onenbeste urtean ez arrapatzeko? Ez dek, bada, nere alegiñen paltan geratuko. Izen gaixtoa jartzen ari zaiok erri oni.

— Beste zenbaiti ez niokek esango, baña iri bai. Sekulako diru-putzua zeramakiken arek. Lapurrak nondik ikasten ditek dirua nork daraman? Irun'dik onera arte ez uan iñon ere sartu. Erramonak eta nik bestek ez genekiken aren berri. Orixe bear genin orain: len ere ainbeste ixtillu pasea nauk emengo lapurretak dirala ta orain lapurtzeagatik eriotza. Lengoa aztuxea gendun

garaian, orain okerragoa. Andrea aspertua zegok eta ni ere bai. Ez bererik ematen ez duelako. Lana eginta noski, baña irabazi pixarra bazekarrrek. Utsik edo artu nai duenik bada, laxter geratuko dek ostatua. Eta eriotz bakarra ote da gañera? Ea Txori ere nonbait or illa arkitzen degun bazterren batean.

— Ea bera dan il duena.

— Ori ezin litekena dek. Pelix etortzerako, palta uan Txori. Arek, pistola zer dan ere etzekik oraindik. Ura baño malezi geiagokoak zebiltzak. Diranak dirala or dabiltzanak, ez dit uste bakarra dabillenik. Batek zeleta egin ta besteak ostu. Bestela, bakarra izan balitz, onezkero erori uan. Laxter asiko dituk atzera-aurrerak. Len ere, erru aundi gabe zulo oietan barrena ibilliak gaituk, eta berriz ere ibilli bearko diagu.

— Au denontzat dek berri gaixtoa, Joxe. Agur, baniak. Epaillea abisu emana dek, arekin batera illa ikusi ta gorputza jaso dezagun. Laxter jakingo diagu zer iritzikoa dan bera.

— Agur, alkate jauna. Erriak ori jakiten duenean, ez dek izango atsegin. Jendeak asko maite zuen mutilzarra uan ori.

Alkatea joan uan eta Txoriren ordeko lanak egiten an geratu uan Joxe, laxter jende-karraio asiko zirala kezka txarretan.

Gorputza jaso ziteken eta errian bereala zabaldu uan berri txar ori, eta denak matxiñadan erten itun udaletxera.



Zana zala, arrapatzeko ango lapurra; bestela, berak arrapatu ta txiki milla puska egingo zutela.

Erriko izen ona galtzen ari zan lapurra ezin bazuten arrapatu, uzteko beren aginteak eta eman leku, ea beste erneagokoak jartzen zituzten.

Estu zegoken erriko bizitza. Oraingoan ez bazuten iltzalle lapur ori arrapatzen, laxter asiko uan erria epaille ta alkatearen buru eske. Ez bazuten pulamentu geiago, zijoazela andik atxurrera.

Alkateak eta epailleak batzar txiki bat egin ziteken eta asi itun banaka-banaka auzitegira deitzen. Beren galderak egin ta geienak etxera joaten itun.

Epailleak Joxe zeukaken begiz joa.

Alkateak etzioken gutxi lagundu: nai ta nai ez, lapurrak etxekoa bear zuela, dirua nork zerman jakiteko, etzuela kolpe utsik egiten ta.

— Iñondik ere, Joxe dek emen lapur ta iltzaillea.

— Zer arrazoi dituk ori esateko?

— Lapurreta guziak ostatutik arteeran egin dizkitek. Sarreran etziotek iñori ostu. Kolpe utsik, berriz, ez dik oraindik egin. Beti diru-putzua daramanen bat arrapatzen ditek, oraingo ontan bezela. Il ta urrengo egunean, ala esaten zidaken Joxek: «Beste iñori ez niokek esango, baña lagun bezela iri bai. Ontzako urrez betea

ziaken Pelix, eta nik eta Erramonak bestek ez genekiken orren berri. Eta Irun'dik erten da lenengo sarrera or egin omen zin tratalari orrek.» Nondik eta nola jakin bear zin iltzalle lapurrak, Joxe ez izatezkeroz, Pelixek ainbeste diru zeramanik? Erramona emakume iñozo bat dek. Arek etzin bada ilko. Ez al zaik, epaille jauna, ori bere burua salatzea dala iruditzen? Len esan detan bezela, Erramonak edo berak egin bear ziteken ori. Erramona, irurogei urte ta geiagorekin, ez uan bada gizona il ta lapurtzera ausartuko. Nai ta nai ez, or Joxe dek iltzalle ta lapurra. Neri, laguna naizelako esan zizkidak gauz oek denak, eta Txori ere balitekela illa izatea; lapurrak an arrapatu bazuen, etzuela il gabe utziko.

— Ez al ditek Txoriren berririk ere?

— Mika-kabi arrapatzera joana beko errekan zala, bai.

— Ea bera dan.

— Pelix etortzerako, Txori beko erre kara joana zala esan zidak Joxek, eta arek ez dakila oraindik pistola zer dan ere.

— Bai. Ni ere iritzi ortakoa nauk: Joxe dala orko lapurra. Baña etzaiok itxurari bakarrari begiratu bear. Ez al dik Erramona norbaitek bitarteko artuko?

— Bai, zera. Ezta pentsatu ere, eroa ez bada beñepin. Erramona, zarra ta erdi gixaixo oietakoa ta ostatuan bertan bizi dana, lan oietan sartzeko modukoa ez dek. Ori bitarteko duela dabillena, laxter galduko uke.

Len epailleak ura bazeukan begiz joa, orain ia ziur jarri uan. Alkatea egunero an zebilleken. Iñork jakitezkeroz, arek jakin bear zin ango martxa.

Joxe espetxeratzeko agindua eman baño len, igo uan ostatura epaillearen aita. Oso Joxeren adiskidea uan, ta berak kontatu zioken alkateak egin zion iruzurra: lagun bezela esandako guziak epailleari jalki zizkiola; laxter baitzera etorriko zitzaizkiola.

— Orregatik ez izutu, Joxe. I lasai joan. Nik babestuko aut. Berdin sei lekuko bagaituk: tiroak entzun genituenean, nola esan gendun denok: Berandu zebiltzak or eiztariak.

— Txori ere an uan nonbait errekan ordu artan. Ura etzaiguk geroztik ageri.

— Naigabe ematen zidak benetan. Ume langille ta ona dek ura, gaxoa. Baña orrek ez dik iri ezertan kalterik egingo. Ni ogei urtean epaille izana nauk eta bazekit gauz oien berri ondo. Ik esan garbi nere semeari, sei lekuko baditukela, ta bat bere aita. Alkate billau ori zerbaiten billa zebillek.

— Eskerrik asko. Ire laguntza etzaidak gaizki etorriko. Batez ere, alkatearen azpijanen berri jakiteak buru-auste asko kenduko zizkidak. Bazekit alkateak zer nai luken: ostatu au. Onen atzetik zebillek. Senar-emazteok aspertu eta uzteko asmoan gaituk. Diruz ez gabiltzak eziñean. Baña ainbeste lapurretak etziguk onik egiten. Orain ez, ordea. Alkate billau orren berri jakin

detanean, alperrik zebillek. Ez dik nai duenik iri-  
txiko.

Epaillearen aita joan ta bereala etorri itun  
Joxeren billa.

Larritu uan Antoni eta besarkatuz ala zio-  
ken:

— Baña au al da zuzentasuna? Mundu gu-  
ziak badaki erru gabea zerala ta.

— Ez izutu, Antoni. Emendik bi ordurako  
etxean naiz. Eta ez naute geiago deituko. Alka-  
tea dabil tranpiz, ni zigortu nairik. Baña ares-  
tian epaillearen aita etorri zait: lasai joateko;  
Pelix il zutenean emen zan ezkerro, arek egingo  
duela nere lekuko. Alkateari baño geiago sinis-  
tuko dio aitari.

Lasai-lasai auzi-etxera joan uan. Zorrotz ar-  
tu zin epailleak:

— Bai; zuk nai dezuna esango dezu. Baña  
nere iritzia, eta alkatearena berdin, au da: emen  
ez dala zu edo zure etxekoren bat beste lapurrik.  
Or dirua nork dabilkin zuek dakizute.

— Ez dakit ori egi osoa dan. Baña badakit  
alkatea zergatik dabillen nere aurka. Ostatuaren  
jabe egin nai luke. Zu, berriz, erriaren beldur  
zera eta lenbizi eskura datorkizuna zigortu nai.  
Baña ez naiz ni erruduna. Nor dan arrapatu nai  
badezu, beste bidetik jo bearko dezu.

— Arrazoi aulak dituk oiek, Joxe. Nik le-  
kukoak eskatzen dizkit. Olakoetan aiek balio  
ditek.

— Ortatik ere badaukat aukera. Tiroen oiartzuna ostatura iritxi zanean, bost gizon zeuden nerekin baratzen izketan. Oietako bat zure aita zan, eta ala esan zigun: «Eiztariak izateko, ez al dira berandu xamarreko tiroak oiek? Nai badezu galdetu, ez det uste ukatuko duenik.»

Deitu zin bere aita ta onek garbi-garbi esan ziokeen:

— Bai, seme, bai. Egia dek ori. Joxe ez dek gezurretan ari.

Etzioken beste galderarik egin. Txuxenean etxera bialli zin. Eguzkia bezin argi, Joxe etzala errudun.

Alkateak ori ikasi zuenean, sumindua etorri uan epaillearengana.

— Baña zer egin dek? Joxe zala erruduna eta ura zigortzekotan geratu ez giñun bada? Zerk atzera egin arazi dik?

— Esaiok nere aitari. Lapur-bidean tiroak entzun ziranean, nere aita ta beste lau lagun Joxerekin omen zeudeken solasean beren ostatuko baratzen, eta nere aita ez dek edozeñekin ibiltzen. Bikarioa, botikarioa, maisua eta sendagillea izango zizkin bere lagunak. Oiei ez sinistezkeroz, zeñi sinistu bear zioat? Lapurra arrapatzezkeroz, beste bide batetik jo bearko detala esan zidak.

— Oiek bostak ostatuan al itun? Ondo zaindua zeukateken, ala jainkia. Eta Txori?

— Amabost urteko mutil gazte mazal bati ezin erantsiko zioagu Pelixen eriotza. Armaren

berri ez dakin mutilla dek ori oraindik. Lapurrak ez badute bera illa... Ori baño maltzurragoak dituk or dabiltzan lapurrak. Joxek arrazoi oso-osea zeukak: lapurra arrapatzezkeroz, beste bide batetik jo bearko detala.

Alkate jaunak sumindua aldegin zin andik. Berak jartzen zitun atea, denak baziteken beren maratilla.

Eta etzekiken asko, Joxek bere azpijan guzien berri bazekila eta etzietela len aña begirune edukiko ostatukoak.

Baña epailleak artu nai zuen bide berri ori, nondik asiko ote zan?

## IGES

Txorik, iltzalleak ikusi zituenean, aldapak gora artu zin, Aiako Arri aldera. Bazekiken kale inguru artan etzegola seguru. Mendi zakar artan, berriz, ango berri ondo zekina baitzan, ez uan ura an arrapatuko zuan amaren semerik, jαιο ezkeru bere urterik geienak an bota zizkin ta.

Bazekiken bere gurasoak, lengoetan bezela, gaizki ibilliko zituztela. Baña beretzat bere burua uan lenengo.

Arkaitz penditz batean eserita, an egon uan ostatu aldera begira zai, goibel, biotz illun, gizarajoa. Mundu ontan maite zitun guziak utzita, igesi joan bear eta nora ez jakin.

Ez balu oiu egin, ikusi zuenez gañera, laxter arrapatuko zizkin arek lapur aiek. Nai ta nai ez, ostatuan sarrera zutenak eta bere ezagunak izango itun. Baña beranduegi damutu uan. Berak etzizkin ezagutu. Baña lapurrak bai bera; ederki ikusi ta ezagutu ziteken. Eta bazekiken,

aiek ikusi gabe etxera sartuko balitz ere, egun gutxi barru garbituko zutela. Pelixen oiua indartsua baitzan, eta Txorik ere entzungo zuela eta zein ziran arrapatzeko bide erdia igaroa zeukala.

Txorik naiago zin segurutik jo. Gauzak garbitzera etorriko uan, bitartean ez bazituzten garbitzen. Baña orain, nai ta nai-ezko joan bearra zeukaken.

Nora joan edo zer egin ezin erabakia arturik zebillela, iltzalleak erdian artu ziteken. Nondik nora zijoa zeleta egin baitzioten. Baña ernea uan eta ikusi egin zizkin. Laxterka ostatu aldera abiatu uan, etsaiak iruzurtzeko. Aiek salta itun bere atzetik, etxera baño len arrapatzeko asmoan. Baña bein txaran galdu zitzaientean, ezkutuko bidetxigor batetik Prantzi'ko bidea artu zin.

Oraintxe bai nai ta nai ez joan bearra zeukala. Ezagutu zuten ezkerro, lenengo egokieran garbituko ziteken.

— Ederretik iges egin dek, Txori. Oraindik ere ez ote ditek sarea jarriko?

Irun'en bazizkin aideak. Ara iñoiz joaten uan, garai aietan oitu bezela, oñez; eta, aiek erakutsita, Endarlaza inguru oietako berri ikasi zin. Bazekiken bi aldeak berexten zitun Bidasoa ize-neko ibai koxkor bat bazala. Arek ematen zioken beldurra. Igari ondo ikasi gabea baitzan.

Aiek esan ziotenez, ordea, oñik busti gabe igarotzeko lekuak bazizkin. Aietako bat billatuko balu...



Baña bereala jarri uan bidean. Lapurrak ez baitzuten etsiko, etxera sartu etzanean, nonbait inguru artan ibilliko zala ta.

Aiako Arriko arkaitz eta txarak, ostatuko sukaldea bezin ondo ezagutzen zizkin denak. Ango arzulo, leize ta beste arraixku-lekuen berri ondo ikasia azkeneko bost edo sei urte aietan.

Bidean bein baño geiagotan nabaitu zizkin jendearen oiñ-otsak eta urrutiko txistuak. Aien-gatik ez uan batere izutzen. Berdin bazekiken, Joxek esanta, aiek kontrabandistak zirala. Aiek beren irabazi pixarrari lotuak zebiltzaken, eta etziotela, topo eginta ere, ezer egingo. Aien etsaiak karabineroak itun.

Ura ara iritxi zaneko, goiz alde a uan eta nonbait an igaroko zin eguna. Ez uan, bada, egun argiz pauso ori ematera ausartzen. Bere burua zeramakiken kontrabandotzat eta ura ere karabineroen beldurrak.

Ainbeste ibilli ta ordu luzetan ezer jan gabea, gosea ere etzin lagun ona. Ez al uan luzarorako izango.

Nondik nora igaro egunez begiz jo zin, eta, bein illundu zuenean, bide zabala igaro eta jetxi uan Bidaso ertzera.

Errexena egin zin. Amar metrora urbildu uan. Oiek zeudeken alde batetik bestera, eta tarte ori nola igaro orain? Igari ondo jakin balu, jolas bat besterik ez uan izango beretzat ura. Orra orain nola beartu dan eta alperkeriz etzin

ondo ikasi, ortarako egokierak askotan izan zizkin ta.

Leku errexak bazirala bazekiken. Baña illunpean nola billatu? Eta putzu sakon batera erortzen bazan, zeñek atera?

Ibai-ertzetik ertzero joan uan luzaroan aurrera, ea leku errosorik billatzen zuen. Ots aundia zeramakiken ibaiak, euritea igaro berria uan ta.

Bakar-bakarrik illunpean ibai ura igaro bearrak beldurra ematen ziokeen. Baña atzero egiteko beranduegi uan. Bertan itoko bazan ere, onezkero etzin atzerarik egingo.

Ai! Gizon iltzalle aien aurrean ez balu oiuru egin, etzin orain orrela ibilli bearrrik. Baña bere biotz mazalak saldu zin. Bazekiken, ikusita ezagututa, ez ikusia egin zutela. Bazekiken gañera, beren lenengo lana bera iltzea izango zutela.

Bereala arkitu zin zabal-leku aundi bat. Erdian, legar-pilla legorra. Beste gañerakoa, txarata sasia. Illun zegoken gogotik. Illargia, erten ta sartu. Ego aldetik jotzen zuela zirudiken aizeak. Ura izango uan lengusuak esaten zioten leku errex aietakoren bat. Itxuraz, beñepin, ala zirudiken.

Errex igaro uan legar-pillaraño, oñakin ia urik ukuitu gabe. Eta, bere ustez, beste alderaño ere etzegoken arraixku aundirik.

Leku ura an utzita, aurrera joan uan, oraindik ea leku errexagorik billatzen ote zuen. Baña

berriro ere legar-pilla artara biurtu uan. Ibai-ertze artan guzian ura iruditu zitzaioken errexena. Txara erdi artan jauzi batean aixa igarotzeko moduko putzu-zuloa zala-ta, an egingo zin bere proba txikia.

Txorik etzin pentsatu, edo etzitzaioken iruditu, urak aundiak zijoazenik eta, ara arte legorra bazegon, andik aurrera izango zala urak aundiak zijoazen lekua, eta arraixku txarrekoa gañera. Goitik ots aundiz zetozen urak, nondik-bait abiaduran igaro bearko zutela.

Ikusi zin putzu ori. Urak geldirik zijoaziken. Txoriri ala iruditu zitzaioken beñepin. Bi aldeetatik txara zeukaken, ta oso itxia gañera. Etzin beste aldea ondo ikusten.

Baña, bein araño joan zan ezkerro, etzeukaken atzera egiteko gogorik. Etzin Txori gaxoak beste igesbiderik. Prantzi'ra joan bear zin edo beste bazterren batera aldegin. Ostatura joaten bazan, laxter ilko zutela bai baitzekin.

Noizik bein illargia azaltzen uan eta putzua estua ta txikia iruditu zitzaioken. Eskua luzatzea aski zuela, beste aldeko arbaztak arrapatzeko. Jauzi batean aixa igarotzeko modukoa. Bein arbaztak eskuarekin arrapatzen bazitun, naiz pixarren bat busti, egitekoa bukatua zeukaken. Muxarra bezin zauli igaroko uan beste aldera.

Amaika proba txiki egin zizkin. Amaika atzera-aurrera ere bai, leku erosoagorik billatzen ote zuen. Denetan errexena andik iruditu zitzaioken eta egin nai zin bere proba. Itotzen bazan, etzin bazterretan dolu aundirik utziko. Bere guraso ta

anai-arrebak egunen batzuz oroituko itun: «Non galdu ote da Txori?» Eta kito. Bera oroitzen zanez, denei orixe gertatu zitzaieken. Bein begien aurretik galdu ezkerro, aienak egin zin. Munduak ere etzin askorik galduko. Urtean zenbat alako ez ote zan gertatzen?

Txorik etzin tarte ura ondo neurtu. Itzalak iruzurtu egin ziteken. Prantzi aldetik goraka zertorreken illargia eta, jakiña, itzalak luzatu egi-ten zizkin, metro batera arbaztak zeudelakoan.

Batere abiadurarik artu gabe, arraixkurik txarreneko lekuan, bere indar guziakin salta zin Txorik, busti gabe beste alderaño aixa igarotzeko asmoan, il edo biziko jauzia.

Ura baño leku errexagoak itun an geienak, eta zenbat eta zabalagoan ura joan an ta errexe-na. Bustiko uan; ori bai. Baña etzitzaïoken, gertatu zitzaiona gertatuko.

Legar gañetik salta zin, azpi gogorra zegon edo ez ikusi gabe; eta, saltaeran, oinpeko legarrak iruzur gaixtoa egin zioken. Oñen bultzaerari amor eman eta bear añako indarrrik artu ez. Beste aldeko arbaztak, berriz, itzal biurtu itun, eta, oñik busti gabe igaro nai zuen Txori, arri astun bat bezela putzuaren erdi-erdira erori uan.

Azpi biguña ez balute bere oñak arkitu eta legar arroan sartu, ez uan galduko. Al zuen aña luzatu zizkin besoak, eta besteak baño aurrera-xeago zegon arbazta baten ostoak eskuan zitula erori uan putzura. Baña arbaztak igesi egin zio-ken.

Orra Txoriren ametsak. Izena bai Txori. Izana ez, ordea. Zugaitz gañetik igaro bear balitz, etzitzaiokeen olakorik gertatuko, ez. Ederki geratu uan orain.

Egundoko karraxia egin zin. Karabineroak entzun ziteken. Baña ibaiaren beste aldean uan karraxia eta aiek an etzeukateken zer egiñik. Etziteken ara igarotzea zillegi.

Orra uraren mende ta igari jakin ez. Azpi gogorra arrapatu balute oñak, aixa igaroko zue-na. Zentimetroren batzuak luzeago izan balitu besoak, arbaztak arrapatuko zizkin, batzuen os-toak eskuan zitula erori uan putzura ta.

Ia lau bat metro zabaleko putzura erori uan. Ondora, berriz, beste ainbeste ez bazan izango ere, larri ibilli. Eta saltaeran bare-bare iruditu zitzaion ura, aballan ziaken gainbeera itxaso al-dera.

Ez uan nolanaikoa gure Txoriren larria. Igari ondo jakin ez. Zeri eldurik ez. Bakarrik eta gau illunean. Orra azkenean bere burua galdu. Orra bere ametsak. Obe zin ostatu inguruan lapurrak tiroz il balute. Onenbeste larritasun gabe buka-tuko zin mundua. Orain ler egiten ari uan eta al-perrik. Arenak egin zin. Etzin geiago iñork aren berririk ikasiko. Iñork etzin non galdu zanik ere jakingo. Denak, lapurrak bazterren batean illa zala usteko ziteken. Buruz jokatu izan balu, etzi-tzaiokeen ori gertatuko.

Etzekigu, ain astun ta indarrean putzu ar-tara erorita, nola erten zan gañera. Txori, beñe-

pin, ur-axalean zebilleken. Ez uan etsitzen erreza. Igeri zekin pixarrarekin, ederki baliatzen uan. Bazekiken, bere gorputzari uzten bazion, galdua zegola; txuxenean ondora joango zala. Nai ta nai ez, itoko ez bazan, indar egin bearra zeukala.

Bein gañera erten zanean, asi uan, larritasun artan, esku ta oñei eragiten. Urak, bere jetxieran, gañean zeramakiken. Itxaso aldera, jakiña. Orrenbeste bazekin Txorik: urak beti beera egiten zutela, eta, itoa edo bizia ez bazuen bazterrik arrapatzen edo urak nonbait trabatuta uzten, bere azkenak itxasoan izango zituala; bere ondakiñak betiko itxasoak irentsiko zituala.

Egiñalak egiten zizkin aretxek, bazterretako arbazta-muturrak ezin arrapaturik, batean ertz batean, bestean bestean. Alperrik ari uan nekatzen. Indarraren indarrez, ia ukuitzeraño irixten uan, baña bazterrik ezin arrapatu. Ustez eskua-rekin ukuitzen zuenean, bazterra jo ta indarrean zetorren urak erdira atera erazten zin. Arrunt nekatzen ari uan gaxoa. Arbazta-mutur bat aski ta ezin arrapatu. Larri-larri ibiltzen uan, baña ezin iritxi. Bazirudiken arbaztak berarekin jolasean zebiltzala; baña jolas gaiztoa. Laguntza eskeintzen ziotela; baña arrapatzen utzi gabe.

Bidasoa'ko ibaia ondo arritsua dek, bada. Ainbeste bidean ur gañean ziaken eta ez arri konkor bat ere, an oñak babesteko, etzin arkitzen. Itxasoan balebil bezela, ura eta ura.

Azkenean etsi zin etzala andik bizirik ertengo; eta iñoren itxaropenetan egotea, berriz, ero-

arena egitea zala. Garai artan an norik ibilli bear zin? Beste aldean izan balitz, baziteken karabineroren batek ikustea edo nabaitzea. Bere eriotzarekin azken burrukan zebillen lekuan, inork ez. Galdu zizkin mundu ontako itxaropenak.

Txara artatik ederki sartzen uan, eziñean zebillen lekura, illargiaren dizditza. Bazirudiken laño artetik azaldu ta parrez-parrez ezkututzen zala. Etzioken nolanaiko iruzurra egiten.

Bi aldeetara txara zeukala, baziaken Txori beera ta beera. Orain ederki ikusten zin alde batetik besterañoko tartea. Len orren ederki ikusi balu, etzin saltako. Garai oneko damutasuna.

Geienera jota ere, lau metrora zeuzkaken bi aldeak. Arbazta-mutur bat aski, bazterrera erteteke. Baña bere egiñal guziakin lau metroko tarte ori ezin igaro. Beti indarka-indarka, ler egiña, alare beera, itxaso aldera. Eta txara-tartea zabaltzen-zabaltzen, eta gero ta itxaropen gutxiago. Ura uan Txoriren ixtillua. Etsia, baña ezin etsi.

— Zertarako etorri ote naiz ni onera? Aien beldurrak bizi baño, obe dit il ere. Bai, noski.

Aita gure batzuk errezatu zizkin laguntz eske. Aita, Semea ta Espiritu Santuari ere deika jardun uan. Ama Birjiña, zeruko santuak, denen bitartekotza eskatu zin. Denok aingeru guardako bana ondoan ibiltzen degula eta ari ere deitu zioken. Baña dena alperrik. Txori, sekula bezin bakar. Arek an utzi bearko zin bizia.

Uraren mende, bazterretara eziñik, zearo bere bizi-az etsia. Urak zabaltzen ari itun. Etsipen artan iruditu zitzaizkion, txara ondo artan, norbait argiarekin ikusi ote zuen.

Oiu egin zin. Ler egiña zegoken. Iñor bazebillen ere, berarentzat beranduegi uan. Arenak egin zin.

— Nere azken orduko irudimena —zioken berekiko—. Nere bizi-naiaren ametsak. Biziaren azken iruzurra. Ez zeru, ez lur-rean, ez dek iñor nitzaz oroitzen.

Eziñaren eziñaz, ondora abiatu uan.

— Nigatik lapurrak balebiltzakek lasai.

Dena illundu uan Txorirentzat. Gizajoa!



## OSTATUAN

Antonik etzin ametsik ere egiten, Joxe laxter etorriko zanik. Illabeteak ura gabe igaro bearko zitula, okerragokoren bat ez bazan gertatzen ere.

Lenago lapurtutakoak salbatzen ziteken. Orain, berriz, ura illa uan eta erria nastu xamarrara zegoken. Alkateak eta juezak zerbait egin naiko ziteken oraingotik.

Ortxe ordu-pare bat baño lenago, ostatura sartzen ikusi zuenean, poztu uan benetan. Norbaitek egin zin lana.

— Orko egitekoak bukatu ditugu, Antoni, —esan zioken pozez Joxek.

— Nondik berotzen ote du gaur eguzkiak? Ikusi ta ere, ezin det sinistu, Joxe.

— Joaterakoan esan dizut, bada, lasai egoteko. Lekuko oiekin ez neukala galtzerik. Epaillea ta alkatea ez beste erriko aundizki guziak aldamenean neuzkan ta. Epaille xarrak, oraingo onen aitak, ez du begien aurrean ikusi nai alka-

tea, eta orrek, Antoni, on egin digu. Ala esan zidan neri: «Alkate baldar au zerbaiten billa zebillek emen. Iñondik iñora galdu nai au. Semea ta biak i zigortzeko alkar artuak zeudeken. Orregatik sartu nauk tartean. Bere eziñak irekin ordaindu nai lizkikek.» Dakizun bezela, Antoni, alkateak iruzurtu egiten gaitu. Orko lapurreta guziak nik egiñak dirala ari da zabaltzen. Ezer eskertzezkeroz, auxe bai eskertzen diot epaillearen aitari. Orain badakigu alkatea nor dan. Orain dena Txoriri erantsi nai dio, bizi dan edo ez jakin gabe.

— Non sartu ote zaigu guri seme maite ori?

— Pelix il zutenean, Txori an zan eta arek ikusi bear zuen dena. Illa edo bizia, arek gutxi gora-beera ezagutuko zuen iltzallea. Alkateak, semearen eriotza ere neri ezarri nai zidan.

— Ez ote degu seme maite orren aztarrenik ikusiko?

— Lapurrak arrapatu badute, bizirik ez. Baña etzan ura edozer moduz aien eskuetara eroriko.

— Baña tiroz ilko zuten?

— Ez det uste. Bi tiroren oiartzuna entzun gendun, eta biak Pelixi tireak ziran. Nik ez det etsi. Txori nondik edo andik bizirik azalduko zai-gun itxaropena badaukat nik. Amabost urte be-teak ditu. Urte oietarako, mutil azia eta burutsua. Iltzalleak ikusi badute, arek igesi egingo zuen.

— Naiago nuke orixe egia izango balitz. Ez illa, ez bizia, geiāgo aren aztarrenik aterako ez ote degun beldurrak nabil.

— Oraindik beñepin ezin gentzake etsi. Epailleak, lapurra arrapatzezkeroz, beste bideak urratu bearko ditula esan dit. Ni ez nabillela tartean, zearo etsi du. Len etxe au saldu nairik genbiltzan. Orain ezta pentsatu ere, berdin onen atzetik dabil alkatea ta.

— Eskerrik asko, Joxe. Orixe entzun naitzun. Bizimodua ateratzeko, leku oberik ez degu billatuko. Emen sendi osoarentzat naiko lana badaukagu, eta irabazia ere bai. Min ematen zidan au utzi bearrak. Zure arraixkuagatik; bestela, nik ez nuen utziko. Orixe eskertzen dizut benetan, Joxe.

Oso berri onak itun eta ostatukoak konten zeudeken. Baña Txoriren berri ez jakiteak illuntzen zin aien biotza.

Ez uan, bada, lapurrik azaltzen eta erria asarre zegoken. Askok, alkate ta epaillearen burua eskatzen ziteken.

Urrengo igande-arratsaldean, an itun, betiko garaian, alkatea ta bere anaia. Baita epaillearen aita xarra ere, erriko maisuarekin batera.

Alkatea zuri-zuri asi uan Antonirekin izketan. Baña onek, bear zuena eman ta alde egin zin. Joxe, berriz, ez uan azaldu ere.

Igerri zioken alkateak bazutela zerbaiten susmurra. Lenago, senar-emazteak, lagun maite

batzuei bezela, ongi-etorri ona egiten zioteken. Oraingoan, berriz, doi-doi itzegin zioken; eta bestea ez uan azaldu ere.

Laurak mai batean eseri itun: alkate bi anaiak eta epaille xarra ta maisua.

Alkateak-eta, oitura zuten bezela, laurak musean ari itun.

Lapurren konturik etziteken aipatu nai. Bai baitzekin epaille xarrak, berak Joxeren lekuko egiña min artu zuela alkateak, eta, berritzen bazuten, asarretuko zirala. Pake-pakean an ari itun, bada.

Baña arrituta zegoken jendea. Aste bete gizona il zutela, zitun diruak ebatsiz; Txori bertako semea ere galdu zala nonbait, eta, gizon-modu aiek ori ez aipatzeko, aien tartean zer gertatzen ote zan?

Polliki-polliki ari itun edan ta musean berotzen.

Batek tranpia egin zuela, besteak ezetz, azkenean sutu itun laurak. Epaille xarra ta maisua alkarren alde. Alkatea ta bere anaia bestetik.

— Amarrekoa nondik atera dezute? —oiu egin zin alkateak.

— Nik baietz uste —esan zioken maisuak. Asi itun berriz kontatzen. Lautaraño iritxi itun, baña bosgarrenik ez uan azaltzen.

— Arrazoi dek, motell. Uste gabean tranpi koxkor bat egitera giaziken —apal-apal erantzun zioken maisuak.

— Ez uste gabea, ez. Ondo zenekitela ari zifiaten. Eta, ortan bezela, beste gauz askotan. Baña denak argitara azalduko dituk oraindik.

— Ardoa igo zaik iri burura. Uste gabea tanto bat jaso degulako ere, onetik ertengo intzan? Zer dituk, bada, guk egindako tranpi oiek?

— Emengo lapurra nor dan mundu guziak bazekik. Denen aotan or zebillek. Erria, berriz, sumindua, zigortzen ez degulako. Epailleak eta biok bat egin genin, merezi zuena emateko. Zer-gatik sartu aiz i or tartean?

— Aaa!!! Neregatik al diok ori? Neregatik al ago erremindua? Esaiguk nor dan lapur iltzalle ori eta neronek lenengo izenpetuko dit merezi duen zigor ori. Zuzentasuna nai diagu guk; ez gorrotoa.

— Ostatuko nagusia edo Txori dek orko gizon-iltzalle lapurra, eta, ire laguna dalako, ik ura salbatzeko egin dek aren lekuko.

Jendea urbiltzen asi uan eta begi-belarri zegoken aien aserrea nola bukatzen zan ikusteko, eta erri guziak jakin nai zitun berriak ikasteko.

— Benetan itxutua ago, alkate jauna. Nik ez dit Txoriren berririk. Aitak dionez, Pelix etorri zaneko lapur-bidean uan. Emen denok zekigu aren kabi arrapatzeko oituren berri, eta bazekit, bizi bada, gazte gozo ta atsegin bat dala, eta pistola zer dan ere oraindik ez dakina. Alare, nik ez dit zifnik egingo arek il zuen edo ez. Ori etzekit. Baña bai Joxe ez dala. Ango tiro madarikatu

aiek entzun genitunean, emengo baratzan geundenen bost lagun Joxerekin izketan. Batek esan ere bai: «Eiztariren bat ibilliko dek.» Eta nik ala erantzun nioken: «Berandu xamarreko tiroak itun oiek, eiztarienak izateko.» Bestela, galde zaiok maisuari.

— Bai, bai, alkate jauna. Ori egi biribilla dek. Au, bikario jauna, sendagillea, botikarioa ta ni geundenen baratzan Joxerekin izketan. Emengo nagusia ez dala, ori eguzkia bezin garbi zegok.

— Eta berak bitartekoa baldin badabilki?

— Ori garbi ikasten ez dan bitarte, etzegok ukuitzerik ere. Ik ez badakik ere, nik ondo zekit lege oen berri. Ogei urtean epaille izana nauk, eta lan oek ez dituk gorrotoan ta indarrez egiten; zuzentasunez bai.

Errea zegoken alkatea eta ala erantzun zien:

— Gorrotoan dabillenenik ez gero ñori esan. Ori etxerako ez dek txarra.

Aztu zizkitekenez musak, eta, egundoko ukabilkada maiari emanaz, epaille xarrak suminduta eraso zioken alkateari:

— Bai. Gorrotoak eraginda abil Joxeren aurka. Ik etxe onen jabe egin nai uke, etzekit zergatik, eta ezin dek, jabeak nai ez duelako. Orregatik, benetako gorrotoa artu diek. Ori itxu ez dagonak, ederki ikusten dik. Eta ondatu nai ituke, betiko etxearen jabe egiteagatik.

— Zer esan deken bai al dakik?

— Jakingo ez dit, bada? Eta, ez baaiz ixiltzen, aundiagoak entzun beariko dituk oraindik. Alkatea aizela ta, ez arroegi mintza, motell.

Maisua ta alkatearen anaia ixilik zeudeken. Etziteken naspil artan sartu nai. Lagun bezela asi itun musean eta tanto batengatik asma-alak esaten etziran bada ari?

Maisuak, pakeak egin naiean, ala esan ziken:

— Utzi itzazute trapu zar oiek ezkutuan. Erriko aundizkiak omen generala gu ta jendearen parregarri geratzen ari gaituk.

— Nere partetik bukatua zegok.

— Gezur-ontzi orrek aixa diok ori, jendearen aurrean alkateari nai ditukenak esan ta gero. Au ez dek ortan bukatuko.

— Zergatik? Alkatea aizelako, errian nai dekana egiteko eskubide berexiak ote dauzkak ik? Iri komeni etzaikena zigortzeko ere bai?

— Nola dakik nik etxe onen jabe egin nai detala?

— Besterik esaten al dek? Ez dituk garbi-garbi azaltzen ire asmoak. Beti erdizka ta inguruka abil. Ori aipatu gabeko solasaldirik ez dit oraindik irekin egin, eta badakik ebanjelioak zer esaten duen: biotzeko aukeratik itzegiten duela gizonak. Irekin dabiltzan guziak, nik bezelaxe igerriko ziotek. Ori denen aotan dabillena dek. Ni ez nauk orren aurka. Saldu nai baditek, or konpon. Baña ez txarrean ta indarrean.

— Zein zebillek emen txarrean edo indarrean besteren etxe-jabe egin nairik?

— Orduan zergatik abil, nere semearengana joanta, zirika-zirika, ura okerrera eramán nairik, Joxe dala emengo gizon-iltzalle lapurra, eta merezi duen zigorra eman bear zaiola? Ainbeste lekukori ere sinistu nai ezik abil ta. Biok izketan ari geran bezin ziur zekigu guk, ez dala Joxe orko lapur iltzallea. Zertarako bota didak orduan arpegira, tarte ortan zertan sartu naizen ni? Maite dit semea eta, utsegin ez dezan, orregatik esan zioat dakidana dakidan bezela. Ori dek maite duanen baten lana. Eta, lapurra arrapatu nai badezute, beste bideak ideki bearko dituzute. Orain arteko lapurreta guzietan Joxeri eraso diozute, eta orko lapurra ez dek ori.

— Eta zergatik ez, palta dan bere semea?

— Len ere esan dit ez dakidala ori. Baña beldur nauk ez ote degun ura bizirik ikusiko.

— Bai. Ire ogei urteko epailletza, beti ori dabilkik ezpañetan. Joanak agertzen eta etorkizunak igertzen erakutsi ote dik? Dena, dakiken bezela itzegiten diguk eta. Nik etzerizkiot Txori illa izango danik. Bera iltzalle lapurra izango ote dan kezka obeak zeuzkat. Norbaitekin alkar artuta, jakiña. Bera berez ez uan ortara jarriko. Gero, diru-putzu arekin poztua, iges egin.

— Ez uan ik len orrela pentsatzen. Ura ere, seme maitea, aítak illa izango zala-ta, aítari erantsi nai ez ioken, bada, aren eriotza ere, bein betiko bukatu zedin begitan eukan gizon ori? Go-



rrotoak errea ago i, eta barkatu nazak, alkate jauna, aurrez-aurre au iri arpegira bota bearra. Nik etzekit azpijanean lanik egiten. Bateko ateak itxi diranean, bestetik erasotzen diok. Baña beti bati eta asmo berarekin: Joxe ta bereak galdu. Sendi bikain au zergatik artu dek orren begitan? Ni igerle omen nauk, ik ala diok, eta orain erori asi aiz igerletzan. Joxeren bitarteko arek egin duela; gizona il, bere diruak ostu ta gero iges egin duela. Ipui baten itxura ohea dik orrek. Nik ez dit berdin pentsatzen. Orko lapurrak, ez dit uste bakarra danik; malezi geiagokoak dirala, bai. Ez da edozein trapu ere. Bestela, onez-kero aspaldian eroriko uan. Orko lapurrak elduleku onak zeuzkak. Agintariren baten babes gozoan ari diranen batzuek agian. Orko ebasle oiek kalte ikaragarria egiten ziotek Joxeri. Or lapur-tzen dituzten ontzako urreak baño geiago gal-tzen dik orrekin ostatuak. Joxeri etzaiok kome-ni emengo lapurretarik. Orrek atzeratu egiten baitu jendea. Orko lapurra, agian tiro batekin bi txori il nai lituzkena izan litekek.

— Aizak: mingain zikin orri galga pixka bat eman zaiok. Orrela, ire iritzian, ni nauk orko lapurra.

— Muturrik ez duenari, muturrik billatzen ez asi. Ostatu au leku onean zegok eta, lana egin ezkeru, badik bere irabazia. Bat baño geiago ibilli litezkek onen atzetik. Batek aurrez-aurre jotzen duen bitartean, besteak ezkututik azpijanean. Uste dit garbi esana dagola ori. Ni epaille banintz, lapurraren billa ortik asiko niñukek.

Etzaidak iruditzen edozer moduzko lapurra degunik au. Eldu-leku aundiak dauzkana ta buruz jokutzen duena, ta erriko aginteren baten soñekopean babesten dana. Denbora izango dek testigu.

Epaille xarraren arrazoi sakon oek zer pentsatua eman zioken mai inguruan entzuten zegoñ jendeari.

— Nik etzekit lapurra nor dan ta nolakoa izango dan. Baña or zeudek lapurretak. Ni alkatenaizen ezkerro, irugarrena dek au. Erriaren izen ona galtzen ari zaiguk. Amaika buru-auste ematen zidak neri. Alperrik dituk nere egiñal guziak. Lapurra aske zebillek.

— Beti bide batetik jotzen dezutelako. Emen bizi dalako, Joxe dek lapurra. Agian, egi-tazko lapurrari ori komeni zaiok. Oraingoan, beñepin, ez dek Joxe. Txori litekenik ere, ez dit uste.

Bazirudiken epaille xarrak bazekila. Bere itzegiteko erak ala zirudiken.

— Txori lapurrak il bazuten, nonbait azaldu bear ziteken aren ondakiñak.

— Andik urbil egundoko karobia zegoken egosten. Ara bota bazuten, aren ondakiñak laxter auts biurtuko itun.

— Badirudik zein dan badakikela. Bein esai-guk garbi, lotu dezagun. Ea orrela egiten degun erri ontako pakea.

— Nik etzekit ezertxo ere, Joxe ez dala besterik. Ni nere iritziak ematen ari nauk. Eta, nor-

baiti iruditzen bazaio arengatik ari naizela, bar-  
ka zaidala. Balegokek lasai. Ez dit iñoren bio-  
tzik samindu nai. Beste edozein bezin barau ne-  
gok ni ortaz. Baña arrapatzen dutena arrapatu,  
ez dek karobiz-karobi dabillen ijitoa izango.

Geiegi itzegin ote zuen damuz epaille xarrak,  
gizona izaki, barkazioa eskatu zin.

Arek etzuela iñor mintzeagatik itzegin; erru  
gabeko Joxe ta bere sendia garbi uzteagatik bai.

Zutitu ta abian, bostekoa luzatu zioken alka-  
teari. Onek, artuz, ala esan zioken:

— Oraindik gauz ortaz luze ta zabal itzegin  
bearrak gaituk, eta jalki dituken arrazoi min  
oiek, ez dituk orrela geldituko.

— Nai dekanean, motel. Badakik non bizi  
naizen. Bestela, ire etxera berdin joango nauk.  
Baña maisu au lagun nerekin detala.

— Bazekit zeren atzetik abillen.

— Len ere esan dit: erru gabeko Joxe ta be-  
reak salbatu. Nere arrazoiak beste egitekorik  
etzeramatek.

— Ez, ez. Laxter alkate berritzeko egunak  
dituk. Orregatik ari aiz azpijanean. Erori ote  
abil leku orren billa?

— Zarra nauk ni gauz oietarako. Patxaran  
igaro nai dizkit nere azken urteak.

Alkatea-ta, sumindu xamarrak, bertan gera-  
tu itun.

Besteak, berriz, etxerako bidea artu ziteken.  
Baña atarian Joxerekin topo egin ziteken eta  
onek, esker emanaz, ala esan zioken:

— Ez dek mundu ontan errexa, saririk gabe benetan maiteko aun biotz bat billatzen. Alkateak bizia ere gugatik emango zuelakoan bizi giñun. Bitartean, gu nola galduko zebilleken. I ere banekiken adiskide ona induala; baña onenbeste babestuko giñunik, ez. Berriro ere eskerrik asko.

Eta pake-pakean joan itun.

## AGINTARI BERRITZEAK

Erriak etsi zin, berriro ere ostatuko lapurra zigorrik gabe ta aske geratuko zala, iñoizka beste alakoren batzuek egiteko. Lapurreta kaxkar aiek etziteken alako ixkanbillik sortzen. Pelixen eriotzak erremindu zin erria, eta lapurrak bazekiken ori.

Erria lasaitu zanean, bada, erriko gizonak ere lasaitu itun.

Alkateak eta epaille xarrak ere, askotan, alkarrengana bilduta, eztabaida luzeak eta gogorrak izan zizkiteken. Baña erderazko esaera batek dionez, ibairañ ez uan odolirik iritxi.

Bide askotatik, biak batera biltzen itun beti: lapurra nola arrapatu.

Epaille xarra alkate-aulkiaren atzetik etzebillela jakin zuenean, alkateak dena barkatu ziokeen. Urteak zeramazkiken, baña oraindik ez uan aspertu.

Urbildu uan erriko buruzariak izendatzeko eguna. Orduan beatzez aukeratzen zizkiteken, Madrid'tik-edo alegia. Ez uan, orain bezela, autitzik izaten. Erriko bost edo sei aundizkiren aolkuz, zegona bera geratu uan. Zertako berriaren eske joan? Lengoa, bada ez badakoa bazuten ere, ezaguna ziteken errian eta erriko semea uan gañera. Aren asmoen eta iritzien berri bazekiteken. Berria jartzen bazuten, ohea izango al uan? Berri ez ezaguna baño, lengo ezaguna ohea izango zala, bai, ta etziteken aldaketarik eskatu. Alkatea ta epaillea, lengoak geratu itun. Erria ez uan oartu ere. Etzegoken gaur bezin erretua. Aoko txulora jana eman ezkeru, etzin geiagorik eskatzen.

Beti bezela jardun ziteken, bada, ango goraberak. Puska baterako aztu itun lapurretak. Joxe ta bereak lasai ostatuan. Txori, berriz... arenak egin zin. Denak iltzat zeukateken. Bere gurasoen eskariz, illetak ere egin zizkiteken. Bañan min ziteken aren aztarrenik ere gabe geratu bearra.

Baña alako batean beste lapurreta, eta oraingoan ere egundoko diru-putzua. Erortzen ziran geienak tratalariak itun. Oek, nonbait, diru asko ibiltzen ziteken berekin.

Asarretu uan berriro erria. Baña lapurra, zana zala, ezereztua geratu uan, lurrak irentsi balu bezela. Eriotz gabekoa uan eta erriak etzin aintzakotz artu. Jendearen aurrean zertarako erakusten zizkiteken beren aberastasunak, eroak aleenak?

Lapurtuak zionez, bi gizon itun, buzo beltz batzukin, arpegia ondo estalia eta larruzko goante zar batzukin. Bat aurrera erten zitzaiokeen. Arekin izketan ari zala, besteak atzetik pistola garrondoan jarri zioken. Zeramazkin diruak kenduta, basoan ezkutatu omen itun biak.

Alkateak, ura beti berera, ala galdetu omen zioken: bazan Joxeren antzekorik, izketan edo gorputzez.

Ezetz; ura baño ondotoxoz txikiagoak zirala.

Alkatea ta epaillea bildu itun berriro, zer egin bear zuten bien artean erabakiak artzeko. Baña zer egin edo nondik asi, lapurraren aztarrenik ere etzegoken ta? Etziteken erriko iñor ere baitu, lapurretak berak baño orrek geiago samintzen zin-ta jendea. Polliki-polliki aztu zin erriak.

Bide ura itxi ta andik ibiltzea galerazteko asmoan ibilli itun. Baña zertarako? Bazekiteken an zer arraixku zegon. Zertarako joaten itun andik?

Ori aztu uan. Baña Euskalerrian tarteka-tarteka iñoiz egiten diran eriotz nazkagarri batek esnatu zin erria. An gertatu baitzan.

Erriko gizon maite langille bat galdu uan. Eguna joan ta eguna etorri, etziteken aren aztarrenik billatu. Erria gogotik saiatzen zalarik ori. Deabruak ote zebiltzan erri artan, ainbeste lapurreta ta ainbeste eriotz egin ta iñor ez arrapatzeko?

Erriko agintariak beren aulkiak zeuzkateken

jokoan eta sari on bat jarri ziteken, aren aztarrenik billatzen zuenarentzat.

Arratsalde batean, epaille xarra, oso mendi zalea uan ta, mendiak bera zetorrela, txara itxu batean beleak sartu-erten zebiltzala somatu zizkin. Bazekiken aspaldiko karobi zar bat bazala an, txara barruan, eta nonbait ara sartzen itun beleak.

— Oiek sarraskira ziazik. Oiek etzebiltzak orrela utsaren atzetik. Bei, ardi, beor edo... zergatik ez galdu zaigun gizona? Zerbaiten ondakiñak, usteltzen ari diranak, bazeudek or.

Errira etorri zanean, bere semeari kontatu ziokeen zer somatu zuen, eta an bazala antziñako karobi zar bat, eta an egon zitekela illaren gorputza.

Urrengo eguartean, bi agoazil berekin zituztela, igo itun aita-semeak, eta an arkitu ziteken gizona, ustela eta erdi jana. Baña bereala oartu itun etzala ura bertan illa. Mandoz ara ekarria, bai. An zeudeken, karobi ondoan, mando-perren arrastoak. Neurtu zizkiteken. Epailleak, gorputza jasotzeko agindu zin. Sendagilleen iritziz, burnizko ukabillaz jota illa uan.

Alkatea erabat utzita, aita-semeak bat egin ziteken, eriotz nazkagarri aren errudunak arrapatu ta zigortzeko asmoan.

Illa ikazkiña uan. Erriko Anselmo izeneko jauntxo bati saltzen ziokeen ikatza. Krispin uan ikatz karriatzeko mandazaia. Alargunak esanta,



bazekiteken ikazkiña bere senarrak urte guziko neke-lanak kobratzeko zeuzkala.

Oek biak edo bietakoren bat uan or gizon-iltzallea.

Aita-semeak, bada, erabakiko ziteken zer bide artu. Jakiña, semea uan epaillea eta onen gain joango uan guzia. Baña naiago zin aitaren aolkua, alkatearena baño. Ez uan arekin ondo etortzen. Emen ere, Joxe nastutzen berdin asiko uan ta.

Biak batera lotu zizkiteken, baño geletan berex, alkar artu ta batera jarri etzitezen.

Ikatz-erostunari egin zizkioteken beren galderak.

Urte bete osoan etzuela ikusi ikazkiña esan zioken, eta etzekila urte beteko zorrak ordaindu gabe zeuzkanik. Arek, illero-illero, mandazaiarekin bialtzen ziola ikatzaren saria. Ikazkiñak ez bazitun artzen, mandazaiak gordeko zitula. Beste bitartekorik etzebillela or.

— Eta artu-eman txartelik bai al dezu?

— Guk, alkarren tratuan, ez degu papera bearrik izaten.

— Eta arek etzeniola ematen esaten badu, nola garbituko dezu zere burua? Txartel aiek izan ezkerro, zurea bukatua legoke. Bestela, arek ukatzen badu, gaizki ibilli ziñezke.

— Nik, kristau zintzoa naiz, beti garbi eraman ditut nere artu-emanak, eta ez daukat orren

beldurrik. Jakiña, illero emandakoaren lekukorik ez det. Baña, azkenekoa eman nionean, gutxieneko zortzi lekuko baneuzkan ondoan. Bat zure aita, maisuarekin joana. Eta, azkenekoa ez bazuen artu, eta zuk diozunez alargunak ezetz dio, or garbi-garbi dago mandazaia dala lapurra.

Lekuko aiek indar aundia ziteken eta Anselmo, besterik gabe, aske geratu uan. Ez ori bakarra. Urte guziko zorretan zeuden ikatzak ordaindu zizkioken alargunari. Onek erakutsi zin bere biotz kristaua.

Bien iritzia oraindik erabaki ez bazuten ere, mandazaia uan an lapurra ta iltzallea, eta auzira deitu zin.

— Zergatik il ta ezkutatu uan ikazkiña?

— Nik ez dit ikazkiñik il.

Arro xamarra uan mandazai ori, eta orregatik, epailleari ere, ika itzegiten ziokeen.

— Alper-alperrik ukatuko dek, motell. Anselmok dionez, txintxo-txintxo ematen omen zin illero ari ordaintzeko; eta, alargunak dionez, urte guzikoak artzeko omen zeuzkaten bere gizonak.

— Aixa esaten dik Anselmo orrek ori. Non dizkik agiriak?

— Zuen artean ez omen dezute txartela bearririk izaten. Beti itzez egiten omen dituzute lan auek.

— Nik ez dit egundo txartelik gabe ezer eman. Artu ere ain gutxi.

— Txartela edukitzea ona dek. Baña oraingoan ez dik txartela bearrik. Azkena eman zinean, zortzi lekukoren aurrean eman omen zin, eta aietako bat nere aita xarra uan. Ire nagusiak etzeukak or zer ikusirik. I izan aiz bitarteko eta au ire lana dek.

— Nik ez dit lapurtu ta iñor il.

— Alperrik ari aiz ukatzen. Lotua ago. Larunbatean izan omen intzan azkeneko, alargunak dionez. Eta ikazkiñak ala esan omen zin, eztabaida gogorra eduki ondoren:

«— Neri au ez badidazute ordaintzen, nik ez dit geiago ikatzik emanango.

«— Or konpon zuek. Nik laxter joko nizkikek besteren bateko ateak. Zer nai uke? Neri ez badit ematen, nik etzeukat neretik ordaintzeko dirurik.

«— Eta iri lana ordaintzen al dik?

«— Neri txintxo-txintxo. Bestela, ez niokek ikatzik eramango. Berak aterako lizkikek orduan bere kontuak.

«— Ori ala bada, bigar or nauk errian, ordainduko dizkidan edo ez jakitera. Gu ere kristauak gaituk, eta, onenbeste lan egin ezkeru, besteak bezela bizitzeko eskubidea bazeukagu noski.

— Ori dena alargunak esan zigukene, berak entzun zuela. Urrengo egunean, igandea, gauzak garbitzera errira zijoala galdu uan ikazkiña.

— Eta nik zer ikusi zeukat orrekin? Ni bakarrik ibiltzen al nauk bide oietan?

— Ik bestek jakin ez errira zetorrenik eta bidean il. I ez izatezkeroz, nola gertatu litekek ori?

— Neri zer galdetzen didak? Ori ire lana dek.

— Alper-alperrik ari aiz ukatzen. Ura galtzea iri bakarrari komeni zitzaiken; arek nagusiarekin itzegiten bazuan, i saldua geratuko intzan ta.

— Lapur asko zeudek erri ontan. Goiko osatuan ere ni ote nabil?

— Ea i augun emengo ta ango lapurra.

— Nik ez dit iñor il ta ezer lapurtu.

— Sendagilleak dionez, burnizko ukabillaz jota illa dek ikazkiña.

— Orrekin zer ikusi zeukat nik?

Orduan artu ta maiera azaldu zin epailleak burnizko ukabil ura.

— Au nondikakoa dek, bada? Ire mandoaren ukullu xarrean, apal txiki batean, gordea zegoken au. Onekin jota il dek ik ura.

— Besteren etxeak aztertzen ere ibilli al zerate? Aspaldian an zegona dek ori. Ez nekiken burnizko ukabilla zanik ere.

— Ukoan itxita babestu nai uke ere burua, baña ez daukak ertenbiderik. Ukabil au garbi-garbia zegoken, eta ibilli berria. Zokoratuta dau den trasteak ez dituk orren txukunak egoten.

— Beste norbaitek ibilli badu, nik zer ikusi zeukat? Gizon bat iltzeko ez dit orren bearrik. Akullu txar bat aski dit.

— Gizona etzegok an bertan illa. Il ta ara mandoz eramana. Karobiaren ondoan an zeudek mandoaren perra-arrastoak. Ondo-ondo neurtu dizkigu ta irearen berdin-berdiñak dituk. Ori ere ukatuko ote dek? Ez baita emen i besterik mando arekin ibiltzen.

— Eroa aleena ni! Galanta, ortaz oroitu ez nintzanean —zioken berekiko mandazaiak.

Onetxek galdu zin eta buru makur geratu uan, erantzunik eman gabe.

— Orduan i augu orko iltzalle lapurra. Ez ukatzea, aitortzea dek gure artean.

Burua makurtu zin ta bere artan itxi uan, nastu samarra, zer erantzun etzekilako. Salatzaile geiegi utzi zizkin epaillearen tirabidean. Mandoaren konturik atera etzulako, bere burua mardarikatuz.

Baña ez al zan bera izango ostatuko lapurra ere? Ez al zuen naikoa aitortu? Amaika galdera egin zizkioteken, baña beti ezetzean geratu uan. Bi zirala zioteken; baña alare epailleak-eta bazitoken naiko zalantza.

Donosti'ra eraman ta an egin zioteken auzia; orduko legeetan, eriotz-pena eman zioteken, pekatua ere aundienetakoa uan ta.

Orduko oituretan, nai zuenak ikusi, agirian urkatzen zizkiteken olako gizonak.

Mandazai au lasaienetakoa izango uan. Egundoko gizon-puska egin omen uan espetxeko atsedenean. Arpegia estalia ta oñak alkarri ta bi es-

kuak atzera lotuakin azaldu zanean, arrituta geratu omen uan jendea. Erraldoi bat omen zirudiken. Arpegia estalia ta ondo lotua, arekin beldurtzen ziralako ekarri omen ziteken. Jendea, txiki ta aundi, erruz etorri uan.

Ikusi zuen batek esanta zekit, bein goian ondo lotuta zegon soka lepoan txibistean lotu ziotenean, kendu omen zioteken arpegiko estalkia, eta bere aitorle zuenak ezpañetara luzatu gurutzea, eta musu eman omen zioken eta malko batzuk ixuri omen zitzaizkioken masallean beera. Eta, ondoren, izugarri begiratu omen zioken jendeari.

Oñak askatu ta azpiko aulkia kendu ziotenean, jendea beldurtu omen uan soka autsiko zuelakoan. Arek egin omen zizkin saltoak, ito baño len. Iru aldiz jo omen zin oñakin bere burua. Azkeneko jauzia eginta oñakin burua jo zuenean, bat-batean luze-luze sokatik zintzilik geratu omen uan urkatua.

Epailleak tanto batzuk jaso zizkin onekin, eta, berak uste zuenez au bazan ostatuko lapurra, pixka bateko pakeak egin zizkiteken.

Baña urrengo goizean or zabaldu uan, bartarratsean ostatuan beste lapurreta bat egin zutela, eta egundoko diru-putzua ebatsi ziotela tratalaria bati.

## BEARRA

Txori gizarajoa ustez itoa utzi genin, itxaropen guziak galduta, ur azpira zijoala. Eta arenak egingo zin, azken puntan ez bazuen aingeru gardakoak askatu. Ain biotzez eskatu al zin, izan ere, aren laguntza. Txorik, nekearen nekez ler egin ta bere begiak itzali aurretik ikusi zuen argia, ez uan ametsa. Ez uan eriotz aurreko irudimena. Ez bizi-naiaren iruzurra.

Ibai-ertzean amuak jarri ta aingira ta amorraitan ibiltzen zan Bidaso'z arunzko euskaldun sasoi oneko gizon aundi bat uan. Kontrabandista ezin etsia bazan ere, parol txiki bat eramaten zin beti berekin, len jarritako amuak ikusteko ta, aitzaki ortan, kontrabandoa aixago egin zezan.

Azken orduan aren argia ikusi zin Txorik. Onen karraxi gaizto ura entzunda, zetorreken ixil-ixilik, karraxia erten zan lekura, bada ez bada ere erne, zer gertatzen zan etzekiken ta.

Txorik, urperatzearekin batera ikusi zin argi ura. Gizaundi arek ere bai Txori urperatzen. An-

go berri ondo zekin. Oso putzu sakona baña geldi xamarra uan, legorretik bi metrora gutxi gorabera. Bi bider pentsatzen egon gabe —olakoetan segundo bat galtzea beranduegi izan litekek—, jauzi batean sartu uan, eta, eskerrak Jaunari, oraindik ondoa jo baño lenago arrapatu zin eta legorrera atera.

Eskumuturra artu zioken. Oraindik indarrean zeukaken bere taupada. Astindu batzuk eman zizkioken eta asi uan Txori ondo arnas artzen, eta ezpañak eta begiak mugitzen. Alako batean, urzaparrada bat bota zin.

Poztu uan gure gizaundia. Mutil eder arek laxter zabalduko zizkin begiak. Nai ta nai ez galdua zegon gazte bat salbatu zin. Arrats artako kontrabandorik bikaiñena arrapatu zin, eta ez uan lenengoa. Len ere beste iru bazizkin orrela salbatuak.

— Gero, kontrabandoa pekatua dek. Gaizki egiña zegok. Zereko gaizki? Orduan, kontrabandoa Jainkoak zergatik saritzen zidak? Kontrabandoan nabillelako, au dek salbatzen detan laugarren bizia, ta gaztetxo batena gañera gaur. Zenaitek salbatu izan balitu, egunkarietan sekulako otsa emango zioteken. Oroigarri, urrezko gurutze ederren bat ere bai. Nik ez dit olakoaren bearrik. Jainkoak dena bazekik eta ori aski dit.

Olaxe pentsatzen zin salbatzalleak, eta, Txoriri arpegira begira zegola, zabaldu zizkin onek begiak eta illargiaren argira gizaundi bat ikusi zin, alai, zoriontsu ta irriparrez, beso lodi batzuk



zintzilik, bibote beltz aundi batzuk ezpailñ gañetan, txapel aundi bat buruan, busti-bustia, ura tantaka. Nor ote zan ura?

Orduan oroitu uan Txori, urera nola erori zan eta nola ondoratu zan. Arek atera ote zuen legorrera? Ametsetan ari ote zan edo benetan il ote zan eta San Pedroren aurrean ote zegon? Sinismenak ala erakusten baitzion eta al zuen bezela, belauniko jarri uan Txori.

Begira zeukan gizonak, ortots baten abotsarekin, ala esan zioken irriparez:

— Zer? Jainkoa naizela uste al dek-edo? Ez, ez. I bezelako gizon bat nauk ni ere. Oraindik munduan ago. Ez aiz il.

Besotik artu ta txutik jarri erazi zin.

— Garai auetan zer enbillen emen?

Galdera bera egiteko asmoan zegoken Txori, ta besteak aurrea artu. Euskera garbian gañera itzegin. Beldurtu xamarra, ala galdetu zioken:

— Eta ez al naiz Prantzi'ra pasa?

— Bai, bai. Prantzia'n ago.

— Eta Prantzia'n ere euskeraz itzegiten al dezute?

— Bazter ontan bai. Au ere Euskalerrria baitek. I ta ni benetako anaiak gaituk.

Ori entzun zuenean, benetan poztu uan Txori. «I ta ni anaiak...» Etzegok gaizki esana. Eta berriro ala galdetu zioken:

— Eta nor zera zu?

— Bearra.

Zoriontsu zegoken eta al zuen goxoena itz egiten ziokeen, izutu etzedin.

— Ez det gaur arte olako izenik entzun.

— Nere izenik ez badek entzun ere, ederki ezagutzen nauk. Amaika dei egin didak, eta ez uan ur gañean bestela orrenbeste denboran iraungo. Ez jakiteaz ez nauk batere arritzen, etxetik erten gabeko umea aiz oraindik eta. Mundu au aundia dek, aundia. Ez uan egundo entzungo alare, norbait eziñik dabillenean: Inguruan zebillek bearra. Aingeru goardakoak laguntzera bialtzen dik bearra. Bearrak, egunaren buruan, lan asko egiten dik. Amaika gizon salbatu dik onezkero, eta ustez eziñak diran lan asko egiten dizkik. I ere azkenean bearrak salbatu au.

Txorik etzin ulertzen nola ziteken ori. Baña arek esaten zuenean, ala izango uan. Etzioken kontrarik eramango.

— Eta nola billatu nauzu?

— Ala jainkia! Entzuteko añako garraxia egin al dek. Eta bearra, i abillen lekuan beti irekin ibilki. Ez dek deitu bearrrik. Deitu gabe, borondatez, bazekik etortzen. Ez dek egundo ain laguntzalle piñik topatuko. Bestela, ume aul orrek nondik atera dituk, igari jakin gabe ta urperatu gabe, oneraño etortzeko kemenak, bearrak ez baiñu zirikatú?

Orduantxe ulertu ziokeen Txorik, zergatik esaten zion bera bearra zala.

— A, bai. Orain ulertzen dizut.

Gaztetxo ura garai artan an ikusita, arritua zegoken Bearra.

— Zenbat urte dituk?

— Amabost beteak.

— Oraindik umetxo bat besterik ez aiz ta bakar-bakarrrik gau-aldi ontan Prantzi'ra pasa nairik... Norbait il al dek, edo?

— Nik ez det iñor il. Iltzen ikusi bai. Iltzalleak ere bai ni. Badakit gure etxe inguruan egongo dirala, ni arrapatu ta iltzeko zai. Aiek ni ezagutu naute. Ortaz ziur nago. Baña nik ez ditut aiek ezagutu. Gaur iges egin badiet ere, gutxiena uste detanean bazterren batean ilko niñuteke, eta obe det, askoz ere, iges egin.

— A, gaixoa, gaixoa! Orrela al abil? Egitan ari baaiz, ondo egin dek, motell. Ator, ator, gure etxera. Gaur gurean lo egingo dek eta ikusiko diagu andik aurrera. Nonbait zerbait izango al dek iretzat, eta oneraño ez dituk iritxiko gizon iltzalle oiek. Ni kontrabandista nauk. Zer dan badakik ori?

— Bai. Askotan entzun izan det: nazio batean lapurtu ta bestean saltzen duten oietakoa, eta beti karabineroen igesi.

— Ez ago kontrabandisten tartean oitutakoa. Ez ditek zuzen erakutsi. Gizon jator batzuak besterik ez gaituk kontrabandistak. Etziotek iñori ezer ebasten. Aduana zikin oietan geiegi ko-bratzen dutelako, guk kontrabandoan merkeago

eramaten diagu, jakiña, ezkutuan, arraixkupean. Nere lanaren bidez bizi nauk. Ez ik uste dekan bezela, lapurretatik. Emengo legez fuera, baña Jainkoaren aurrerako garbi. Alperkerian bizita besteren bizkar aberasten diran oiek, oiek dituk lapurrak. Nai al uke kontrabandista izan?

Bearra seme batekin bezela ari uan Txorirekin, bere biotz gozoa zearo zabaldu nairik. Ez beldurtzeko, esku onetan erori zala alegia.

— Zer nolako lana dan ikasi egin bearko lenbizi.

— A, motell. Gaztetxoa aiz, baña bai ernea. Buru argi ta arrazoizkoa daukak. Goazemak, goazemak emendik, busti-bustiak gaudek eta pulmoni txarren bat arrapatu baño lenago. Ibiltzeko gauza al aiz? Ez intzan geiegirik lertuko. Gaztea bereala etortzen dek bere onera.

— Bai, Bear jauna, bai. Dena pasa zait.

— Paketetxo au eramango al uke?

— Urrezkoa ez bada, aixa.

Txorik pakete txiki bat, kontrabandoa noski, eta besteak saski koxkor batean amuetan erori ziran amorrai ta aingira zikiñen batzuek, abiatu itun etxe aldera. Txori umoreko ta zoriontsu zia-ken, espaka gaixto ura egin ondoren, bere salbatzalle alai aren aldamenean.

— Kontuz paketetxo orrekin. Orrek asko balio dik eta erne, bazekit beste kontrabandisten batzuk salatu nautela ta. Ik begi onak dauzak. Iñon ezer somatzen badek, abisa zaidak —esan zioken Bearrak.

Nagusi jauna beldurak zijoala oartu zanean, bera ere zerbait beldurtu uan.

— Ea arrapatu ta Prantzi'tik botatzen nauten. Alako espaka egin ta berriz botatzea ere, ederra izango uke.

Txorik erneak zizkin begi-belarriak, eta arraixku txarrak erneagoak egin zizkioken.

Illargi ederra zegoken. Itzalak ederki nabarmentzen itun urrutira. Estrata estu bateko sarreran, bere salbatzallea bizkarrean ukuituz, ala esan omen ziokeen erdi aopean:

— Bear jauna, ez orrera sartu. Ez al dago zuen etxera beste biderik?

— Zer esan nai didak orrekin? Baita beste amar ere.

— Obe genduke orduan beste bideren bat artu, estrata itxu ortan sartu baño. Ni ez naiz or geiegirik pio.

— Zergatik? Bear jauna izutu nai al uke? Edo adarra jotzeko gogoia daukak?

— Ez, Bear jauna, ez. Aizerik ez dabillenean, itzalak geldirik egoten dira, eta nik luzatu ta moxtu egiten diran itzalak ikusten ditut, ez baret beintzat ibai ortan nere bista galdu.

— Beldur-ikarak artua ago, Txori. Non ikusten dituk luzatu-moxtu dabiltzan itzal estrañu oiek? Nik ez dit ezer ikusten.

— Ez dituzu ikusten, estrata onen artean, luzatu ta moxtu dabiltzan itzal oiek? Iñondik ere, an karabineroak edo antzekoak dabiltza.

— Ez, motell. Ez dituk karabineroak. Antzekoak bai. Xerdarmeak deitzen ziegu. Txori deitzen ditekela? Nik gau-txori jarriko nitek. Bejondeikela, motell. Bai, itzal oiek bazebiltzak eta aizerik etzebillek. Gizonak edo astoak, baño an bizidunak dituk. Ernea aiz benetan, motikoa. Prantzi guzian etzegok olako txakurrik. Ez baitun ikusi, txoro-txoro beren atzaparretara sartuko giñun. Urtetan ni kontrabandoan nebillek eta lenengo egunetik nik baño malezi geiago daukela erakutsi didak. Berrero, bejondeikela, Txori. Ederretik salbatu nauk. Bear dit i bezelako bat eta nerekin geratuko aiz, salbatu detan bat baño eskertsuagorik ez dit arkituko ta. Laxter ezagutu nauk. Laxter artu dek nere airea. Umorezko adar-jotzalleak dituk neretzat lagunik maiteenak, eta i alakoxea aiz. Ernea aiz, Txori, ernea.

Ez uan asarre Txori. Bearrak erakutsi ziokeen ernea izaten eta nagusi berriaren biotza irabazi zin. Etzin, nola etzekila, leku billa ibilli bearrik. Norbaitek laguntzen ziokeen. Alkar salbatu ziteken eta alkarren eskertsu geratu itun.

Beste bide batetik artu ziteken. Andik eunen bat metrora atzerago bazegoken, urritz artean, bidetxigor txiki bat eta andik igaro itun.

Urrutixeago zeramana utzita, urbildu uan Bearra, itzal aien egilleak zer ote ziran ikustera. Aitaren egiñaz, izutua geratu uan. Xendarmeak itun estrataren bi aldeetara jarriak, beren izkillu zarrak eskuan, luzetetsirik aspertuak, norbaitek salatuta beraren zai noski. Berak gazte ura erio-

tzetik salbatu bazuen, orra orain arek bera nola salbatzen zuen. Ala zioken berekiko:

— Zeñen ederra dan, nor dan begiratu gabe on egitea!

Txorirengana urbildu zanean, maitasunez ta eskertsu ala esan omen zioken:

— Ederretik salbatu nauk, Txori. Bi xendarme, zuenean karabineroak, zeudeken an zai-zai jarriak. I ez baintzan nerekin etorri, eulia armiarmaren sarean bezela an geratuko niñun. Jainkoak saritu dik nere lan ona, Txori. Len ere bitan arrapatua nauk. Gorriak ikusi ondoren eta urte guziko irabaziak txautu ondoren, espetxetik erten niñun. Oraingoan, ezertarako ez nintzala utziko nioteken. Au beste kontrabandisten baten lana dek. Azio kaxkarra alare. Arek ni salatu ta xendarmeak onera biali dizkik. Bitartean, berak beste aldetik nai añako kontrabandoa eramango zin. Bere irabazi pixarrarengatik laguna saldu. Olakoxeak gaituk askotan gizonok: kontzientzirik gabeak. Ai, motell. Dirua engañagarria dek. Ederki ordaindu didak, Txori. Etzaidak au berealakoan aztuko.

— Bearrak egiten ditun lanak.

— Ori, ori. Bearra beti gurekin zebillek. Buru azkarrekoa aiz, Txori. Laxter ikasi dituk nere maleziak.

— Ez al dago beste bizimodurik? Olako arraixku gaixtoa dagon lekuan zertarako sartu berriz?

— Ortan ere arrazoizkoa aiz, Txori. Baña apizioa zer dan ez dakik. Mozkorrak bazetik, geiegi edaten badu, zer gertatuko zaion. Alare ezin utzi. Aukera jarri ezkeru, neurriak laxter gañezten dizkik. Orixe gertatzen zaidak neri. Astindu ederrak eman zizkidatek. Alare, lengo-  
ra. Legez fuera ibiltzeak atsegin ematen zidak neri, eta arraixkupe ortan irabazten ditudan diruak, askoz atsegiñago zaizkidak. Gaurko ontatik ertetzeak, bi bider saritzen dizkik nere nekeak. Ori dek apizioa. Goazen pakean, Txori, gure etxera. Dena merezi dek eta.

Lapurdi'ko partean zegoken, eta Bidasoa'ren ertzean, Berraren baserri pollita. Baserri txikia, baña babes-babesean, txukun ta garbia. Txori salbatu zuen lekutik ez oso urruti. Andreak atea zabaldu zueneko, esan zioken Berrak:

— Ona, Joxepa: beste semetxo bat ere bada-kartzut. Au da ibai kaxkar ortan salbatzen detan laugarrena. Gero, kontrabandoa txarra dala esango didazu. Ikusten al dezu Jainkoak nola bedein-katzen duen nere arratseko lana?

— Eta zuk salbatu al dezu?

— Ez da ordu beterik oraindik, korderik gabe atera detala. Baña, Jaunari eskerrak, laxter etorri da bere onera. Gaztetxo eder bat gañera. Aguro ikasi du ordañak ematen. Onak ez balitu xendarmeak ikusi, orain espetxean negon. Onak salbatu nau, zai neuzkanak urrutira ikusita.

Eta ango oituretan, ongi-etorri bero bat eman ondoren, ostatuaz gañera bi laztan goxo eman ziz-



kioken etxeko andreak. Jantziz aldatu ta apari-  
-lege bat emanta, etxean artu ziteken.

Lotsatua baña kontentu zegoken Txori. De-  
nean itun biotz onekoak. Ordurarte lan besterik  
etzieken eman eta aspaldian urrun dabillen seme  
bat bezela artu ziteken. Eta, beretzat pozgarrie-  
na, euskera garbian itzegiten zutela. Etzin iz-  
kuntz arrotzik ikasten ari bearrik.

Lenengo gau artan, nekatua bazegon ere, lo  
artu baño len erabaki oek artu zizkin: lenago  
bezela, txintxo lan egin; biotza, mingaña ta es-  
kuak garbiak ibilli; etxeko denen menpeko bizi;  
eta gorde bere irabazi pixarrak. Len ibilli zan  
lekuan, on egin ziokeen orrela ibilliak.

Goizean jeiki zanean, berriz muxuka eraso  
zioteken. Lenengo, amak; gero, etxean zeukaten  
alaba txikiak, ortxe amalau bat urtekoa. Geiago  
ere bazizkitek; baña Ameriketa aldera joanak  
izan bear ziteken geienak.

Lotsatu uan Txori eta ala ziokeen berekiko:

— Azukre-koxkorren bat ote nauk ni? Txu-  
paka-txupaka urtuko niotek.

Bereala antz eman ziokeen non zegon. Ia ber-  
tan ikusten zizkin Aiako Arria eta Jaizkibel. Ba-  
serri txiki ta polit bat uan bere ostatu berria.

Bearrak, jeiki zanean, Txori bazterrak azter-  
tzen atarian zebillela somatu zin. Bereala joan  
uan berarengana. Bein egun onak eman ondoren,  
galdetu ziokeen:

— Leku berri au atsegiña al zaik?

— Oso. Au gure aieka bezelatsukoa da.

— Berdin-berdiña, ibai kaxkar batek berex-ten gaitzik eta. Aizak, Txori: artzangoan oitua al ago? —galdetu zioken Bearrak, bere buru-austeak ortan zeuzkaken ta.

— Barkatu, baña nik beti nekazaritzan ta ostatuan egin det lana. Artzantzan ere berdin-berdin jarriko nintzake, nola egin erakusten ba-didazu. Aiek zaitzea, ez da beiak zaitzea baño askoz zallago izango, eta etxean bi beiren kon-tua bakarrik neraman.

— Alaba gazte orrekin bakarrarekin bizi gaituk. Geiago ere badizkigu; baña mundu berri orren ametsak lilluratuta, nonbait ara aldegiñak dituk, eta nik bat bear dit nerekin. Geratuko al intzake?

— Arritzen naiz ori galdetzeaz ere. Pozik. Ez degu asiera txarra egin, alkar salbatu degu ta. Zuk agindu, bai, ta nik ura egingo det.

— Orixe jakin nai nin. Ikusiko dek zeñen ederki konpontzen geran. Ez aut ankapean ibilli-ko, ez, nik. I biziagia aiz ortarako. Soldata pixar bat ere emango dit. Nere kontrabandoetako bi-deak ere erakutsiko dizkit. Ama-alabak bakarrik geratzen dituk, ni palta naizenean, eta gaxoak gaizki ibiltzen dituk.

— Esaidazu zer martxa daramazun aziendakin, nagusiak nai duen bezela egin dezadan lana, eta utzi urte guziko nere esku, oitua nago ta. Nor dala uste dezu Txori?

— Etzekit oraindik nor aizen. Ume alai-  
aizela beñepin bai. Olakoxeak dituk nere begiz-  
koenak. Emen bi bei kaxkar besterik etzeukat,  
eta barruti pixar batzuak. Baña aurreko mendix-  
ka ortan artalde bikain bat bazebilkit, mutil gaz-  
te baten mende. Morroi bezela zeukat, baña alix  
ura lapurra dek eta biali nai nitek andik. Naiago  
nitek ara joango baintza. Bestela, nere alabak  
joan bear izaten dik goizero, arek an bear ditu-  
nak eramanaz zaldi koxkor batekin. Onuntzean  
esneak ekarri, gaztak etxean egiten dizkit eta.

— Ori baño buru-auste aundiagorik ez ba-  
du, Txorik txistua jo ta kantatuko du, oitura  
duen bezela. Ori neretzat ez da lana.

— Alai aiz, Txori, ta izlari bikaña —esan  
zioken Bearrak.

## MORROI

Alaxe, Txori Bearraren morroi geratu uan. Alabarekin batera egin zizkin bi edo iru atzera-aurrera artzai-txabolaraño. Bein ango martxa artu zuenean, alaba etxean geratu uan eta bakarrrik egiten zizkin ango gora-berak.

Artzai-mutillaren txabolan geratzeko agindua eman zioken Bearrak. Baña arek etzin an lagunik nai. Lapurretako jenioa bazuen, ta gutxiago. Arek etzin lekukorik nai. Artarako, bakarrrik aski uan.

Alaba bezela, Txori ere goizetik joaten uan zaldi koxkor batekin. Artzaiarentzat eramana an utzita, beerakoan esneak ekarri. Bitartean, bi beiren kargua ederki eramaten zin bakarrrik.

Txoriren pintasunak txoratu zizkin senar-emazteak. Lanean ari zan lekuan, amaika bertso zar kantatzen zin, ostatuan ikasitakoak; eta ama-alabak, berak etzekila, atsegiñez egoten itun entzuten. Iñongo txori-kantu guziak jotzen zizkin txistuka. Txori? Uraxen bai txori. Bereala irabazi zizkin denen biotzak.

— Orixe mutiko alaia ekarri diguzuna  
—esaten zioteken Berrari.

— Alaia, ta langillea gañera. Kontrabando-  
aren lanak dira oiek.

Artzai-mutillak antz eman zioten etorritako  
mutil berri ori artzai jartzeko asmoan zebillela  
Bearra, eta, biali baño len, dena zegon bezela  
utzi ta aldegitea pentsatu zin. Baña nagusi zar  
ura lotsagarri utzi ta gero. Jendearen parregarri  
utzi nai zin.

Berrak ondo zekiken lapurretatik bizi zala  
ura, eta egun guzirako etzizkioken bi sardin zar  
besterik bialtzen, bere eguneroko mantenu gisa.  
Ez, nagusia zurra zalako. Besteak lapurretatik  
nai zuen aña artzen zuelako. Orrela, nazkatu era-  
zi ta aldegitea nai zin andik.

Goiz batean, Txori jeiki zanean, Berraren  
ate aurretik zijoazen denak, bide zabal baten  
ondoan zegoken-ta Berraren etxea, atera begi-  
ratuz par egiten ziteken. Zer gertatzen zan ikus-  
tera erten zanean, berak ere parrari eman zioten.  
An baitzegon artzai lapurraren iseka.

Bi arri, aundi xamarrak, atez kanpotik erdi-  
erdian zeuzkaken jarriak, eta, bi arri oek eusten  
ziela, bi ziri, sardin zar bana muturretan zituz-  
tela, ageri-agerian txutik.

Ura ikusita, par egiten zin jendeak. Ala zio-  
teken askok, artzai-mutillaren lana zala bai bai-  
tzekiten:

— Zurra aleena, bi sardin zarrekin mantenu  
du nai badek morroia.

Txorik abisatu zioken nagusiari, eta, ikusi zuenean, onek ere parrari eman zioken, grazi egin balio bezela.

— Etzegok gaizki pentsatu ta egiña. Ez bazan lapurra izan, ez uan olakorik gertatuko. Ez dit irekin ori egingo, ez. Aldegin duenean, pakea eman dik.

Arria kendu ta bi sardin zarrak gorotz-pillara bota zizkin.

— Aizak, Txori. Oraintxe bai artzai joan bearko dekala. Lapur orrek aldegin zidak, artalde osoa bakarrik mendian utzita. Ez alare nik nai orduko. Ez uan emen bean ere lan txarra egi ten baño.

Txorik etzin bi aldiz esan bearrik. Dena utzita, txuxenean txabolara joan uan, eta alaba asi uan berriro joan-etorrian.

Laxter antz eman zioken Bearrak zenbat osutzen zion. Litro-mordoxka ona. Esne geiago ekartzen zioken Txorik orain. Ori dena lapurrak ebasten zuena, beste gauz askoren gañera.

Txori landare bikaña joan uan eta, bi urterako, Bearra baño luzeago zegoken. Gorputzez ta arpegiz egokia gañera. Artean, jakiña, segailta mea. Baña bein aziburua artzen zuenean, asiko uan sendotzen ere. Bizarra asi zitzaiokeen. Prantzesen betiko oitura danez, bibote aundi batzuak utzi zizkin. Iges egin zuen ezkeru ura ikusi etzuenak, etzioken antzik emango ere, garai bateko Txori izan zitekenik ura.

Txorik, berak eskatuta, orain artzantza ez ezik, eguneroko joan-etorria ere berak egiten zin, etxeko alaba amarentzako aske uzteagatik.

Alako batean, topo egin zin bere nagusi Bearrarekin, eta onek, bera ere gizon alaia uan-ta, beti bromako zegona, ala esan zioken:

— Kaixo, iru Txori. Emengo taloa ta esneak on egin ditek iri. Len alako bi baaiz orain.

— Bai, Bear jauna, bai. Gorputzarentzat ez-ezik, animarentzat ere leku atsegiña da au. Emen ez da gure lengo ostatuko iskanbillik nabaitzen. Beti esker onez gogoratuko det nik au. Alare, ni etorri nintzanean, amabost urte nitun, ta orain emeretzigarrenean noa. Iñoiz azitzezkeroz, lau urte oetan azi bearko.

— Ulertzen dit, bai. Gazte bikaña etorri intzan gañera. Pozten nauk benetan. Ni ere gizon garratza nauk. Baña ni baño luzeago aiz orain i, ala jainkia.

Iñoiz, zama aundia zuenean, eramaten zin Txori kontrabandora; eta, Bearra gaixo edo norabait joaten zanean, Txorik egiten zin ordezkoa. Etzin beñere beartu nai izaten, ura bere arraixkuan ez sartzeagatik. Kontrabandorako gogoak berez etorri bear dik eta bere borondatez asi lanean. Morroiarekin ortan zuzena uan Bearra.

Txori alai bizi uan bere ardien artean. Pa-kea ta atsegiña besterik etzin arkitzen. Larrera botako zizkin ardiak, eta bera, muñoren baten gañean txistuka ta kantari, bere sorterri aldera begira, an egongo uan luzaroan egunero.

Beti bereak zetozkioken gogora. Orain zegon lekua, ederra uan. Baña bere sorterría goxoagoa iruditzen zitzaioke. Bere guraso ta anai-arreben oroitzik ezin zin burutik kendu. Nola ote zebiltzan? Iges egin zuelako, zer esaten ote zuten?

Etzekiken asko, bera aspaldian iltzat zeukata, etsipena artuta; eta, jendeak zionez, aren ondakiñak azaltzen etziranean, egosten zegon karobian kixkalia izango zala.

Bere muño gañean txistuka ta kantari ari zan batean, bi xendarme ikusi zizkin illuntzeko puntuan beko sakonean, Bearrak kontrabandoarekin igaro bear zuen inguru aietan. Etzin izaten andik jiraxoren bat egin gabeko illunabarrik. Bearra aien eskuetan erortzeak min emango zioken Txoriri, bizia zor zioken ta. Berandu xamar itun gañera. Aiek, iñondik ere, bere nagusiaren usaiean zebiltzanak itun. Bakarren batek salatu zin orain ere Bear jauna.

Kontrabandista sonatua ez uan; sallarekin ibiltzen diran oietakoa. Berak beretzako bakarririk egiten zin lana. Bidaso'z onuzkoren batekin itz emana zegoken. Onek ara pasa ta arek onera. Emendik zijoanaren zama Bearrak artuko zin, eta arek zekarrena emengoak, irabazi aundirik gabe. Baña zan pixarra, beretzat bakarrarentzat.

Arrats artan, ardiak bordaratu ta Txori kontrabando-bidean geratu uan, arkaitz aundi batzuen gañean, baña ezkutuan, beren babesean gordea, ardi-txakur txiki bat berekin zuela. An bean ikusten zizkin xendarmeak; baña etzizkin



bistatik galdu nai. Noren zai ote zeuden? Edo, iñoiz bezela, ikusi-mukusin ote zebiltzan arkaitz arte aietan barrena?

Ai Bearra, Bearra! Jakiñaren gañean jartzeko zalantzan ibilli uan. Bañan alperrik izango uan arekin. Arek etzin atzerakorik egingo. Bertan zelatari geratu uan, alakorik bazan, laguntzeko asmoan.

Illundu zuenean, beeraxeago jetxi uan, ortxe gaberdi aldera.

*Alto* emendik eta *alto* andik, nabaitu zin beko iskanbilla. Estu zebilkiteken bere nagusia.

Bearrak, bere larritasunean, etzin ikusten ere noski. Urduri ta estutua, egiten zuen guzia aurrera beti. Alare eziñean.

Txorik, goitik aurrea artu zieken eta urrun ikusi zin Bearra, baña zamarik gabe. Txoriren txakur txikiak laxter billatu zin non zeukan utzia. Xendarmeak urbildu baño len, artu zama aundi ura bizkarrean. Etzeukaken sasoi txarra. Ogei urteren urbil zebilleken eta, iru milla demoniok ez badu, laxter artu zin aldapak gora. Laxterka batean gora zijoala, egoaidera ikusi ziteken. Tiro batzuek sutu zizkioteken. Iru edo lau bala txorrotx txistuka igaro itun bere gañetik. Baña bereala ezkutatu uan mendiaren babe-sera, eta:

— Agur, xendarmeak! Sutu orain nai dezuten ainbeste.

Aldapak gora joanta, an ezkutatu zin eta be-  
ra lotara joan uan.

Xendarmeak suminduak zeudeken. Jakin nai ziteken Bearra zan ala ez an zebillena. Txuxenean bere etxera joan itun. Andrea erten uan atera.

— Senarra etxean al da? —galdetu zioteken—.

— Bai, bai. Senarra oiean dago.

— Egia ote da gero ori?

— Zer arraie zabilzate zuek garai ontan emen? Egia esanta ere, ez al dezute sinistu nai? —leiotik oiu egin zieken Bearrak—. Ni salatz nautenak, zuek onuntz bialita lasai egiten ditek kontrabando.

— Barkatu, barkatu. Etxean zeunden jakin nai gendun ta.

Tripa jaten oieratu uan Bear gizarajoa, kontrabandoa galduta. Garestietakoa eta zama aundia gañera.

— Alare, neroni arrapatzea baño ohea dek. Urte guziko irabazi pixarrak joan dituk. Baña ni aske geratu nauk.

Txori ez uan tontoa. Bazekiken urrengo egunean xendarmeak inguru aiek aztertzer a etorriko zirala. Orregatik, goizean goiz, zaldiaren bi aldeetako saski banatan jarri zizkin esne-marmitak eta erdi-erdian zama aundi ura, ondo lotua, belar onduzko sorta aundi bat egin eta aren barruan, eraman-ekarri batekin ondo bildua ta estalia, eta lasai-lasai zetorreken, oi bezela, etxera. Baña, bere zoritxarrerako, xendarmeakin topo egin ta dena aztertu zioteken.

— Zer daramak zaldian?

— Saskietan esne-marmitak, eta gañean beientzat sorta bat belar ondu.

Ukuitu ziteken gañeko sorta belarra, baña etzioteken igerri. Txistuka urrundu uan, baña ez lasai zegolako. Gero nagusiari kontatzeko pollita izango uan. Baña orduan biotzak alako jauzi bat egin zioken.

Len beti Bearrak berak zabaltzen zioken atea. Zai egoten uan gaztagiñan asteko. Baña orduan alabak zabaldu zioken.

— Zer? Aita ez al da etxean? Edo gaixo dago?

— Ez, ez. Ez da gaixo egongo noski. Bart, kontrabandoa galduta, oso tratu gaixtoa eman ziotela esan zigun. Etxera bertaraño ere etorri zitzaizkigun xendarmeak, emen ote zan jakitera. Jaunari eskerrak, etxeratua zan ordurako. Umore txarrekoa dago noski.

Txorik bere esne-marmitak utzi zizkin bere lekuan, eta beste belar-sorta aundi bat ere bai marmiten ondoan.

— Au ere aitarentzat dakart —eta joan uan bere bordara.

Alabak, deituz, ala esan zioken aitari:

— Esne-marmitak or daude. Beste belar-sorta bat ere bai, Txorik zuretzako ekarria.

— Zer belar-sorta, ordea?

— Ez dakit. Jeiki ta ikusi. Ez dit zer dan esan. Or dago marmiten ondoan.

Zer izan ziteken sorta ori jakiteko pozez, ondo jazteko ere betik gabe, jeiki uan Bearra. Askatu ta kaja ikusi zueneko, sendatu uan. Bazkalondoan, bada ez bada, bueltaxka bat egiteko asmoan zebilleken ta orra etxera ekarri.

— Nondik atera ote du arek au?

Alai kantari asi uan:

— Bedeinkatua Txori. Bedeinkatua salbatu nuen arratsa. Bedeinkatua morroi artu nuen ordua. Bedeinkatua artzai biali nuen eguna.

Garai batean profetak Jainkoa bedeinkatzen bezela, Bearra Txori bedeinkatzen ari uan zori-ontsu.

Emazteak nabaitu ta ala esan zioken:

— Apaiz sartzeko asmoan zabiltz edo erotu egin zera?

— Apaiz sartu? Ez dakit ez ote nuen obe izango. Ez al dezu ikusten kaja aundi au marmiten ondoan?

— Bai. Txorik ekarri du.

— Ori da, bada. Txorik ekarri duela. Au da bart nik galdutako kontrabandoa. Nola ez det bedeinkatuko nik mutil ori? Non arkitu ote du au?

— Azkenean, kontrabando orrekin burua galduko dezu.

— Ez kontrabandoarekin. Zurekin, bai, galduko det nik burua. Txintxo asko eskatzen didazu, bada, nik onekin artzen detan dirua. Eta

eskerrak kontrabandoari salbatu nuen berdiñik gabeko gazte eder au. Pekatu da, pekatu, kaja eder au bistan edukitzea.

Bearra gorriak ikusia uan len ere, eta beldur uan etxea aztertzeraz ez ote zitzaizkion etorriko. Orregatik, kaja seguruagoko zulo batera eraman zin. Eta txoria baño alaiago asi uan gaztagiñan.

— Zer egiten duen afizioak! —zioken andreak—. Sendatu den gure gizona. Umore txar guziak pasa zaizkion.

Andrea ere Txori bedeinkatzen asi uan azkenean.

Txorik ardiak larrera atera zituneko, an itun xendarmeak. Artzai-txabola ta bere inguruak aztertu ondoren, Txoriri galdezka asi itun.

— Len bidean topo egin ez degu bada?

— Aizak, eta i intzan noski.

Eta, beste gabe, alde egin ziteken.

Bearrak eta bereak gero ta geiago maite ziteken Txori.

## JOAN-ETORRIA

Txori ondo bizi uan, ezeren paltik gabe, pake-pakean, etxeko denak maitatua.

Ogei urtetara iritxi uan. Bost, igesi egin zuela.

Bearraren alabak ere emeretzi urbil, eta nai-ko maiteminduak zebiltzala antz eman zioteken gurasoak. Zer besterik nai ziteken? Oso begi onez ikusten baitzuten gazteen alkar maitasuna. Berdin bazekiteken, oberik etzuela bere alabak arkituko.

Mutil gazte bikaña zegoken. Goxoa, alaia, mazala, otxana eta langillea. Txistu, kantu ta bertsoa besterik etzeukana, bakarrik zebillenean. Bera bizi zan lekuko oiturak artuaz, egundoko biboteak utzi zizkin.

Lengo lagunik ezagunenak ere, orain Txori ezagutzezkeroz, erne ibilli bearko ziteken.

Bearrak oso maitea zin. Aitzaki bat bakarra zeukaken Bearrarentzat, oso-osoa izateko: etzue-

la kontrabandorik aintzakotz artzen. Etzeukaken ortarako gogorik. Irabazi gutxi ta arraixku geiegi zeukala esaten zioken Bearrari. Joera orixe izan balu, lurraren gañean ez uke alako mutillik.

Bearraren emaztearentzat, berriz, aukeran aukerako mutilla uan. Onek etzin kontrabandistik nai.

Beti beldurrak noiz arrapatuko zuten. Sarritan, xendarmeak etxean. Eta, urtearen azkeneko, irabazi bearrean, askotan galera. Noiznai kontrabandoa galdu, ta, uste gabean arrapatzen bazuten, illabetetarako espetxera. Gero, ara ta onera etxerik etxe ibilli bear, baitua babestuko zuten aundizkien billa.

Ama-alabak, batez ere alaba Malentxok, alakoxeko laguna nai zin beretzat. Ez beti etxetik igesi dabillena.

Noiznai maiean izaten zizkitekenez olako eztabaidak. Azkenean, aita bera ere makurtzen uan etzuela kontrabandoarekin praka berri asko egin, eta neke ta arraixkua bai ugari.

Txorik lasai par egiten zin eta bi aldeen arrazoiak artzen zizkin ontzat, eta, denakin ondo etortzeagatik, ala esaten zin:

— Kontrabandorik gabe ondo bizitzeko modurik badaukat, ni ez naiz kontrabandora joango. Ezin badet, orduan nik ere zerbaiti eldu bearko diot.

Ori, denak ontzat artzen zioteken. Olaxe, etxeko bat bizi uan Txori.

Igesi joan zan ezkeru, etzizkin bereak aztu. Bere guraso ta anai-arrebak nola ote zeuden jakiteko, ikertxo bat egitea pentsatu zin, jaio ta lenengo urteak bota zitun leku xarretara.

Bearraren baimenarekin, jarri uan etxerako bidean.

Etzin iñoren aurrean bere burua erakusterik nai. Prantzes baten antzera eta prantzes bezela igaroko uan. Norbaitek ezagutzen bazuen, orduan jakingo zin zer egin. Etzin egun bat besterik igaroko. Goiz-goizetik etorrita, arratserako joan.

Etxekoak, alkarrengana biltzen ziranean edo egun jakiñetan oroitzen itun Txoriz, eta askotan berritu ere bai naigabez:

— Illa edo bizia, non ote dago Txori?

Baña geienak etsi ziteken, eta aztu uan gañera, etzala geiago Txoririk azalduko. Edo iltzalleak arrapatu ta illa, edo bazterren batean bere burua galduko zuela. Ori uan geienen iritzia.

Berriz ura bizirik ikusteko ametsik etziteken egiten bereak. Txori, denak iltzat joa zeukateken. Baita iltzeko bere atzetik ibilli ziranak ere.

Prantzi'ra igarotako bide beretik etorri uan. Arek arratsean igaroagatik, dena berdin iruditu zitzaiokeen.

Ikusi zin bera putzura erori zan zuloa, eta par egiten zin ara begiratuta.

— Orain lasai par egiten dek. Baña aingeru guardakorik ez bazitzaiken azaldu, non ote en-



gon orain? Or erori intzan, bada, i. Aula izaki oraindik. Baña oinpeko legarrak saldu iñun. Bestela, aixa igaroko uan ik putzu ori. Ementxe ilta piztu intzan. Ez diok egundo bear bezela eskertuko Bear jaunari, orduan egin zin mesedea.

Endarlaza'n barrena, igaro zan bide beretik, bost urtez lenago ibilli zan lekuetatik etorri uan bere errira. An barrena igaro uan, andik lapur-bidean gora ostatura igotzeko.

Aldapak gora zijoala, topo egin zin bere arreba gazteenarekin.

Nonbait goian ostatu txiki bat bazala esan ziotela ta ea txuxen zijoan andik galdetu ziokeen.

— Ondo zoaz. Jarrai bide orri eta bereala an zera —esan ziokeen arrebak.

— Eskerrik asko —esanta, aurrera jarraitu zin. Ondo zekiken arek non zegon ostatua. Baña zerbait esan bear ta esan.

Arrebak etzioken antzik eman ere. Pozik esango ziokeen nor zan. Bai baitzekin benetan poztuko zuela. Baña orduan beintzat etzitzaioken komeni.

Neska, aldapak bera joan uan; eta mutilla, gora.

Beko erreka ondoan gurutze bat arkitu zin, Pelix Irastorza non il zuten oroigarria.

Iltzalleak nondik ikusi zitun ere bai, arpegi estaliarekin, bat xardea zala ta bestea ezker aldera erren egiten zuena. Nor ote ziran aiek? Etzizkin ezagutu.

— Pelix gizarajoa —zioken errukituz berekiko—, erru aundi gabe il inñuten i ere.

Iltzalleak arrapatu ote zituzten? Edo oraindik intxixuen lapurretak jarraitzen ote zuten? Txapela erantzi, aita gure bat errezatu eta ostaturako bidea artu zin.

Ezagutzen bazuten, zer erantzun bear zieken? Zergatik joan zan jakitean, barkatuko al zioteken?

Bere guraso ta anai-arrebak besarkatzeko zoratzen ziaiken. Baña, biotza korapillatuz, arrotz bat bezela igaro bcarko zin, uste gabean ez bazuen beintzat bere biotzak saltatzen.

Len bat ikusi zin. Nola ote dabilta besteak?

Xendarmeak etziteken izutu. Odol otzean aurpegi eman zieken ango arraixkurik gaixtoenei. Orain, bere biotzak iruzurra egingo zion beldurrak zetorreken.

Sartu zanean, oraindik amabiak ez itun ta jendez betea zegoken ostatua. Igandea uan, baña alare garai artan ainbeste jende ikusteaz arritu uan Txori.

— Beti orrela betea egoten ote da au?

Bigarren arreba zegoken tabernari. Ai zer landare bikaña zegon! Amaikak begiratu bear zion neska.

Denak, berari begiratzuz, bibote aundi aiek ikusita, onela zioteken:

— Prantzesa izango dek ori.

Laurden bat ardo eskatu ziokeen bere arrebari. Au, berriz, estrañu aren bibote aundiak arritzen ziteken. Baña etzioken antzik eman ere.

Berak zekarren bixigarri bat jateko, utsik zegon mai batera urbildu uan.

Jaten ari zala, sartu itun ama ta arrebarik zarrena.

Begira-begira jarri uan Txori, ama-alabak arritzeraño. Oartzen baitzan ama, zorrotz begiratzen ziela. Baña alabari begiratuko ziola; ez berari.

— Ezaguna al den mutil ori? —galdetu ziokeen amak.

— Dakidala, ez det gaur arte ikusi.

— Kontuz, Iñaxi. Zorrotz begiratzen ziñan. Eta, oraindik ere, zear-begiratuka ari zain. Ezaguna izan ez ta orrela begiratzeko, nor ote degu ori?

— Neska gazte batentzat txarra al da ori? Bibote aundi oiek zerbait aldrebesten dute. Baña egi ontan ez dago olako mutillik. Alkatearen semeak alako amar balio du orrek —erantzun ziokeen alabak, adar-jotzalle.

— Sartu al zain, sartu?

— Biotzeraño ez noski, baña begietara bai. Edozein neskatxen begiak asetzeko añako mutilla bada ori.

Baña Txorik, alabari baño, amari geiago begiratzen ziokeen. Zeñen pozik esango ziokean nor zan. Baña bere burua saltzea izango zan.

Aita etzin ikusi oraindik. Agian, ikusiko ere ez. Baña bazekiken baratz aldean zebilela. Entzuten zin aren abotsa. Lagunen batzuekin an ibilliko uan.

Anaia, berriz, bazekiken soldaru joana izango zala, bera baño bi urtez zarrago uan ta.

Bereala oartu uan denak lapur-kontuan ari zirala. Erne zegoken zerbait ulertzeko moduan entzuten ote zuen.

Baña ondoko maiean solasean ari ziran bi gizon etorri zitzaizkioken ondora. Bertan eseri ta ala galdetu zioteken:

— Euskalduna al augu?

— Baita nai ere.

— Baña ez emengoa.

— Bidaso'z arunztik natorrek.

— Bibote aundi oiek ederki salatzen aute.

— Bibote aundi oekin orren nabarmen gertzen al nauk?

— Gure artean beñepin bai.

— Gure aiekan, zar ta gazteen oitura au dek. Emakumeak berak, balute, utziko litekek noski. Emen, ikusi nauteneko, arritzen dituk, berriz, eta erdi nazkaz begiratzen zidatek. Emakume oiek ere arrituta geratu dituk.

— Biboteengatik edo mutil gazte eder es-trañu bat ikusi dutelako?

— Eskerrik asko loretxo orrengatik. Orrek, beti ere poz ematen dik. Denak lapur-kontuan ari zerate?

— Ezagun dek, bai, arrotza aizela. Bestela, emengo gertakizunen berri ikasiko uan. Ostatu madarikatu ontan, tarteka-tarteka, egundoko lapurretak egiten dizkitek eta ezin arrapatu. Bein, Pelix izeneko bat ere il ziteken lapurtzeagatik. Ni emengo alkatea nauk, eta badakik zer buru-austeak ematen dizkidaten? Guardiak egiñaz-eta or gabiltzak, baña bazekik utsunak arrapatzen. Pelix il zutenean, nere iritzia ta epaillearena berdiñak itun: emengo lapurra Joxe zala edo Joxeren bitartekoren bat. Oiek bizi dituk etxe ontan eta, iñork jakitezkeroz, orrek jakin bear dik emen dirua nork daraman eta be alde artan noiz palta diran guardiak. Ez baitik kolpe utsik egiten. Ez ori bakarra. Pelix il zutenean, lapur-bidean Txori kabi arrapatzen lentxeago joana an omen uan. Txori esaten zioten Joxeren bigarren semea. Aztarrenik utzi gabe, galdu dek. Alegiñak egin dizkigu ura billatzen, baña ez digu arkitu. Lapurrak iküsi ta arrapatuko zuela, eta il ta egosten zegon karobi batera botea izango zala. Ortan geratuak dituk. Illetak ere egin zizkioteken. Baña ni ez nauk iritzi ortakoa. Joxek eta bere seme Txorik alkar artu ote zuten, eta Txori, amabost urteko mutil azia, ez ote dan iltzalle ta lapurra. Pelix tiroz il ziteken, eta, gizon bat tiroz iltzeko, ez dik indar aundiaren bearrik. Eta gero, Txori, diru-putzuarekin poztua, aita aoa bete ortzekin utzi ta igesi egiña dala. Edo aitak berak illa, semeak lapurretan arrapatu zuelako. Bi eriotz eta lapurretak Joxerenak dirala; ni ortan negok.

— Nola zekitek Txori illa dala, ez bizi ez illa, ez badute aren aztarrenik?

— Ura illa dala bazekigu, illetak ere egiñak dizkik eta. Etxekoak ere aspaldian etsita bizi dituk, ura ez dala geiago azalduko.

Arritu uan Txori, eta berekiko onela esan ere bai:

— Balekite zeñekin izketan ari diran... Aren berri geiago jakin gabe, illetak eta guziak egiñak, eta ni bizi-bizirik, komeni zaitan guzia ikusi ta ikasten, eta illa naizela uste duten etxean bertan.

Ondoren, onela esan zieken:

— Joxek bi eriotzak egin zitula jakinta, nola etziteken bada urkatu?

— Epaillearen aita sartu uan tartera. Oraindik ere, epaille bera dala iruditzen zaiok. Arek egin zin Joxeren lekuko. Lapur-bidean tiroak entzun ziranean, ura beste lau lagunekin ostatu-ko baratzan Joxerekin ari zala, eta ura bi lekutan batera ezin zitekela egon, eta, emengo lapurra arrapatu nai bazuten, Joxe utzita beste bide-rik jo bearra zegola, emengo lapurreta guzietan erru gabea zala Joxe ta. Epailleak arrazoi osoa eman ziokeen eta aske geratu uan. Baña oietakoren bat dek lapurra. Orain ere ura Joxerekin zegok baratzan. Or izketan ari dan ori, aren abotsa dek.

— Eta orduko lapurretak berritzen ari al zifiaten orain?

— Ez, zoritxarrez. Atzo arratsean egin zin azkenekoa. Orregatik zebillek emen orrenbeste

jende eta nabari digu iskanbilla au. Eta, jakiña, zer gerta ere, epaille xarra Joxerengana etorria. Arrapatzen dutenean, oien sallekoa izango dek, bai, emengo lapurra. Ez dik kolpe utsik egiten. Beti, diru asko duena arrapatzen dik. Dirua nork daraman lapur orrek nola ikasten dik? Nai ta nai ez, etxe ontan dagona bear dik, ordaintzera-koan-edo, diru asko daramala ikusita.

— Bai. Ortan arrazoi dek. Etxe ontan dabillena nai ta nai ez bear, diruaren berri jakiteko. Baña ez lapurra. Dakinak salatuta, kanpokoak lapurreta egin lezakek. Lapurrak eduki bai-lezake etxe ontan bitartekoa.

— Bai, ori litekena dek. Ni beñepin errea nabillek. Erriko alkatea ni bainauk. Lapurra etxe ontan zebillek, etxekoa edo kanpokoa. Baña ez dek edozein. Onenbeste urtean ezin arrapatu. Zaitzalleak jartzen dizkiagu, askotan neroni, baña ondo zelatatzen gaitzik. Bazekik utsunak arrapatzen. Lotsagarria baita ori erri ontararako, eta alkatearentzat zer esanik ez.

— Ni ez nauk ire iritzikoa. Joxe ta bereak erru gabeak dirala iruditzen zaidak. Ostatuari etzaiok emengo lapurretarik komeni. Orain, etxe ontan dabillena edo bitartekoren bat emen daukana dala, ori bai.

Txori zutitu uan. Jakin nai zitunak ikasi zizkin. Xarde maltzur ura ere an ostatuan urbil asko ikusi zin.

Illuna baño len Irun aldera sartu bear zin. Kontrabandoan sartuta kontrabandoan ertengo uan. Xendarme oiekin ez baitzan ondo etortzen.

— Agur, alkate jauna eta besteak. Illuna baño len sartu nai nitek Irun aldera. Emen aurki lan gaitzak astekoak dirala esan zidatek, eta guretzat lekurik izango ote dan galdetzera etorria nauk. Gu ere baserriko semeak gaituk eta emengo martxa berbera zegok an ere: sendi ugarriak eta lan-toki bakarra. Biziko bagera, besteren atea jo bear.

— Bai urte batzutarako lana laxter asiko dek. Bide zabal bat egitera ziazik. Amaika langillerentzat lekua izango dek. Neurtzen asiak dituk. Esolak jarri dizkitek. Arrobian ta ormak jasotzen lana izango ditek argiñak. Baietz eman al ditek?

— Bai. Izena ere artu zidatek. Ni bezelako gazteari etzaiola lanik paltako esan zidatek. Eta zuek suerte on bat izan, erriko izen ona galtzen ari dan intxixu biurri orrekin.

Tabernariari bere zorrak ordaindu zizkioken. Itz batzuk ere egin zizkin berarekin. Bere ama baitzegon. Pozik nor zan esango ziona. Bai baitzekin benetan etxeko denak poztuko zituala. Baña urengoren batean izango uan. Bereen artean ibilli uan eta iñork etzin ezagutu.

Jakin nai zitun gauz asko ikasi zizkin. Lapurrak, len bezela jarraitzen zutela.

Pelixek «Xarde madarikatua!» oi u egin zion ura ere, ostatuan ikusi zin.

Ostatua goraka zijoala ere antz eman ziokeen. Igandetan ezin txanda arturik ibiltzen zala jendea esan zioteken.



Orain, bide berria asten zutenean, askoz ugarriago etorriko uan jendea. Bere aldamenetik baitzijoan eta arrobia ostatutik bertan zeukateken.

Errian, baita guraso ta anai-arrebak ere, iltzat zeukateken, eta aspaldian illetak egiñak.

Orain baziaken, baña etorriko uan. Ez itun gauzak ortara geratuko. Lapurrak bere merezia artu bear zin.

## NESKA-LAPURRAK

Bearrak bazekiken Txori ta bere alaba zerbait maiteminduak zebiltzala, baña ez ainbestirik oraindik. Orregatik, etzin ametsik egiten; Txori bere aurrean geiago ikusiko zuen itxaropenik etzeukaken. Bein bere etxera joan zan ezkerro, betiko bereekin geratuko zala. An jaioa uan ta an zeukaken bere senide-arte guzia, eta aiek beren artean geratu eraziko zutela.

Pake-pakean atarian ikusi zuenean, poztu uan Bearra, bere Ameriketako seme bat etorri bali-tzaio bezela. Asko maite zin Txori.

Etorri zala, ama-alabak ikasi ziteken. An agurra erteran ta sarreran musuka egiten ditek, eta biak musu banarekin eman zioteken ongi-etorria, beren seme ta anai bati bezela.

Bearrak, zorionsu, ala esan zioken:

— Goibel xamar ator. Ireak okerren bat izan al ditek-ala?

— Zer nai zenduke, bada? Lapurrak aske dabilta eta erru gabeari ezartzen dizkiote pekatu guziak. Nola etzera arrituko? Nere aita omen da orko gizon-iltzalle ta lapurra. Arek il omen zuen Pelix. Eta arek il omen zuen Txori bere semea, ni alegia. Ni denak iltzat naukate. Illetak ere egiñak ditut. Il ta kixkaltzen zegon karobira botea nintzala. Orregatik, nere aztarrenik ez dutela arkitu. Aren eriotza nere bezela bada, leku onean dabilta gizon oien esamesak.

— I beti Txori. Neri adarra jotzen ariko aiz. Ez dek ori egia izango.

— Bear jauna, egi-egia esaten ari nauzu.

— Arrituko itun orduan, i an ikusi autenean.

— Ez nau iñork ezagutu. Ez diet nor naizenik ere esan. Orregatik, nere buruan dabilkidan asmoa, askoz errexago beteko det. Nere aita maiteari ere bere izen ona biurtu nai nioke, eta zoriona ta pakea nere ama ta anai-arreba maitagarri aiei. Erriko alkateak eman dit denen berri. Baña gure ostatuan ura da nere aitaren salatzaile, eta sumindua dago, nere aita baitu ta urkatu ez dutelako. Epaillearen aitak babestu zuen nere aita. Arek egin lekuko. Pelixi tiratako tiroak entzun ziranean, epaille xarra, maisua, sendagillea, botikarioa ta bikario jauna, ostatuko baratzan Joxerekin izketan zeudela, eta ura ezin litekela izan iltzallea.

— Oiek lekuko zitula, nola baituko ziteken gizona?

— Alkateak ori nai zuen, bada, ta bost urteren buruan oraindik ere erremindua dago. Xardea da iltzalle lapurra, eta ostatuan ikusi det.

— A, motell! Abil erne. Arraixku txarreko lana dek. Presakaegi ibillita ez ere bururik galdu. Agian aiek aurrea artu dezakitekek. An lekurik ez badaukak beintzat, emen zegok ire etxea, artzantzan ta bakardadean. Ez dituk oneraño etorriko. Au babes segurua daukak.

— Bejondeizula, Bear jauna. Eskertzekoa da zure eskeña, eta aolkua ere bai. Iltzalle lapurrak ez dira edozein moduzkoak. Au ez da txorakeria. Pauso ori emateko, ondo ikasi bearra daukat lenengo. Alare, nere sendi maitagarriari biurtu nai diot bere izen ona. Baña, Bear jauna, ni an geratuko naizen beldurrik ez izan. Kabitxo au asko maite det. Zure txori goxo ori askoz geiago oraindik.

Bearrak, zoriontsu Txoriri esku emanaz, ala esan zioken:

— Eskerrik asko, Txori. Baneukaken orren itxaropena, i baño seme oberik ez dek sartuko etxe ontan ta.

— Izan ere, ain patxaran bizi naiz ni emen eta ain ondo narabilkizute. Eta uxoa, bere amak bezela, biotza besterik bai al du? Sei urte daramazkit emen. Zuek ondo ezagutzeko naiko asti eduki det.

Bearraren mende, ala esan baliteke, betiko martxan geratu uan Txori, baserri ta artzangoan.

Iñoiz kontrabandoan ere bai, Bear jaunari lagunduz.

Txintxo zebileken gure Txori, eta diru-mordoxka pollita zeukaken aurreratua, Etzeukaken lagun arterik. Etzitzaioken komeni gañera. Bear zuen guzia eskura zetorkioken, berriz. Emendik joandakoren batek bere izengoitia entzun da arraixkuan sartzeko beldurrak zebileken.

Baña uste gabeko gertakari batek aurreratu ziokeen etorrera.

Bear jaunak bi seme ta alaba zizkin. Baña semeak, oso gazterik, mundu geiago ikusi nai zutela-ta egatu itun, baserri polit ura utzita, euskaldun asko iresten ari dan Ameriketara, diru-pozean.

Gurasoak alaba txiki batekin geratu itun, eta beren bizia aña maite ziteken alaba bakar, txukun, goxo, pinpilinpauza ura. Uraxe uan gurasoen bizi-poza. Arengatik saiatzen uan bere aita, saiatzen zan bezela. Aren begiakin ikusten ziteken noski gurasoak.

Garai artan, neskatx asko aztarrenik utzi gabe galtzen omen itun betiko. Arrapatu ta saldu egiten zizkiteken Ejito alde edo Arabia'ra, edo beste norabait, jendearen jostallutzat edo sultanen ukulluetara. Gure beiak bezela an bizitzen itun itxituran, espetxean bezelatsu, sultan ustel ta lizun aien kutizirako. Prantzi aldean bai omen itun kontrabando zikin ortatik bizi ziranak.

Inguru xamarretik, urte artan bertan, bi galdu omen itun. Ez itun illak. Ori denak bazekite-

ken. Baña berentzat, il baziran, obe. Urde batzuen mende, urde bezela bizi bearako ziteken ta.

Bearra ere beldurrak bizi uan, bada. Artzai-txabolara bestetara etzin alaba bialtzen, eta, Txorik gizon estrañu batzuk ikusi zitula esan zion ezkerro, neska etxetik ez uan urruntzen. Txorik berak egiten zizkin atzera-aurrerak, naiz artaldea etxetik bertan eduki.

Egun batean, etzekigu zertara, sendagillearen-gana noski, alaba erri aundi batera biali bearrean arkitu uan. Baña nai ta nai-ezko eginkizunen bat bazeukaken eta berak joaterik ez. Ez uan asko larritu. Bera baño askoz geiagoa uan ortan Txori, eta bazekiken benetan biak alkar maite zirala. Fiñez, berriz, iñork autsiko etzuana. Etzin, bere alabari laguntzeko, oberik billatzen. Txori gauza zan arte, aren eskuetatik kenduko zuenik ez uan. Oraindik gazte xamarra izanagatik, indartsuene-tako bat uan. Goiz batean, bere ondora deiturik, ala esan ziohen:

— Kontrabandoan oitua ago noski. Bein baño geiagotan askatu nauk xendarmeen atzaparretatik. Errira joango al intzake, kontrabando eder batekin?

— Zuk agindu, bai, ta pentsatu egiña da-gola.

— Kontrabando ori galduko bau, jakin zak Bearra ere galduko litzakela.

— Olako kontrabandorik bai al daukazu emen?

— Bai, Txori: nere alaba bakarra. Orren begiakin ikusten ditek nereak. Orren begiak itzaliko balira, bere gurasoenak ere itzaliko ituke. Aspaldi ontan aize gaixtoak zebiltzak emen, eta neskatx asko galtzen dituk betiko, aztarrenik utzi gabe. Eta, ik gizon estrañuak ikusten ditukela esan idaken ezkeru, beldur orrekin nebillek. Oraintxe zegok ortarako bere adiñikan txarreanean. Nai detan errira eramateko, eta ara biali nai nitek illabete batzuetarako bere osaben etxera, neronek laguntzekotan ibilli nauk. Gaur, ordea, ezin nezakek. Alare bazekit: benetan aitor-tzen dit eta ez losintxaz, nerekin baño seguruako ziak irekin. Alabak esan didan bezela, an igaroko dik alditxo bat, bere osaben artean. Meserez, lagunduko al ioke?

— Eskerrik asko, Bear jauna, bota dizkidazun loretxo oiengatik. Ez meserez eskatu neri. Zure morroi bat besterik ez naiz. Kontrabando ori oso atsegiña da neretzat, eta Malentxorentzat zer esanik ez. Aukeratu diozun laguna, ez dago neskatxei laguntzen oitua. Onekin egingo det asiera. Pozik lagunduko diot. Alaba galdu zaizula esaten badizute, kontuak atera Txori ere galdu zaizula. Ni gauza naizen arte, au ez dute nere ondotik kenduko.

— Eskerrik asko, Txori. Nik ez dit oberik arkitzen, eta, alkar maite zeraten ezkeru, seguruago ziak irekin. Banekiken ez idala ukatuko.

Alaba dotore jantzi uan eta pinpilinpauza bezin arin ta ezin egona azaldu uan atarira bere amaren ondoan. Bereala asi uan muxuak ereiten.

An musua merke dek. Oitura zuen bezela, laztandu zizkin bere gurasoak. Lagunduko zion Txori ere bai. Malentxok, lagun bat aukeratu bear-ta, aitak eman ziona besterik etzin aukeratuko. Orregatik, alai erten uan etxetik, bere gurasoak larri xamar utzita.

Txorik, bada ez bada, Bearrak emandako makil astun bat neskari eman zioken. Bera esku utsik erten uan. Uste gabeko batean makillak baliu zin, baña berak arriak aukeratu zizkin.

Malentxo lasai ta konten ziaken. Etzekiken arraixkuaren berri. Txorik bai, ordea. Bein baño geiagotan ikusi zizkin arabe maturreko gazte arrotzak. Arjelinoak zirala esan zioken Bear jaunak. Neska-tratuan zebiltzanak, gañera. Etzin uste beartuko ziranik, baña kontuz ibilli bearra zegoken.

Txara arteko estrata batetik erten nai zin Malentxok bide zabalera.

— Barkatu, nere etxeko andre gaztea; baña gaur aitak nere esku utzi zaitu eta emen nik agindu bear det. Beste argiagoko bide bat artu bear degu. Esango dizut gero zergatik.

Etzin neskatxik izutu nai, izutu batek besteak izutzen zitula ta.

— Trenbide ori egin berria da ta, bide zabaleraño ez-ezik, erriraño irixten dana. Ez naiz emendik oraindik igaro. Zu ere ez noski. Ori ikusiz, joan gaitezen bertatik. Biderik laburren ta seguruena ori degu.



Neska Txoriren mende ziaken eta, aren egin-kizuna ondo eramán edo bidean galtzea, zoraturik artu zin aren asmoa.

— Bai, bai. Goazen ortik, nik ere ez det oraindik ikusi ta.

Trenbidera irten ziranean, alde guzietara begiratu zin ta lasaitu uan Txori. Bista ederra zegoken. Uste gabekorik ezin ziteken lekua. Bear bazan, arri-aukera bertan, eta egokixkoenak esku ezkerrean artu zizkin.

— Zertarako dituzu arri kozkor oiek? — galdetu zioken Malentxok.

— Beartzen banaiz, jakingo dezu — erantzun zioken.

Zoriontsu ziaziken bi maitaleak trenbidetik. Dana gainbera artzen ziteken, eta urruti xamarre-  
ra ere oso bista ona. Etsairik ez bazan azaltzen ere, oso bide erosoá. Azaltzen bazan, berriz, eta lautik gora ez baziran eta suzko armarik gabe, aiekikoa laxter egingo zin. Arri-aukera zegon lekuan, Txorik etzeukaken aien beldurrik.

Orregatik ziaken trenbidetik, Txori benetako arrikaria uan ta. Txikitan mendian ibiltzen zanean amaika saio egiña, eta orain ere artzantzán zer esanik ez.

Pakean ziaziken, burnibideak zekazkin aurrerapenak eta egin zituzten zubi eder aiek go-raipatuaz, goxo-goxo.

Bada ez bada, Txori, ordea, erne. Ikusi baitzitun lau gizon burnibide aldera artzen, eta, darik gabe, iñoiz ikusi zitun arjelinoak itun.

Inguruan ez uan erririk. Baserri etxerik ain gutxi. Txori bakarrik lauren aurka. Malentxo enbarazutako besterik etzin. Oraintxe bai zeukala il edo bizi jo bearra.

Igesbiderik etzeukaten zubi batera iritxi ziranean, trenbidera igo itun laurak. Aurretik bi eta atzetik beste bi, lau gizonen artean erdian artu zizkiteken. Amar bat metroko saltua bazegozen zubitik. Iñora igesi egiterik etzeukatela, erdian artuak zeuzkateken biak.

Urbildu ziranean, orduan bai, ederki ezagutu zizkin aiek etzirala prantzesak eta Bearra beldurtzen zuten mutur gaixtoko neska-lapurrak zirala.

— Orra, maitea, ni beldur nuena. Ez dizut len zuri esan, ez beldurtzeagatik. Baña oiek zure billa datoz. Neri ez didate ezer egingo. Zu eramango zaituzte, geiago gurasorik eta ni ikusiko ez gaituzun lekura. Oiek arjelinoak dira, neskak ebatsi ta saltzen dituzten oietakoak.

— Eta bakarrik oien eskuetan utzi bear al nauzu orain?

— Sei urte oetan alkarrekin bizi gera ta ez nauzu oraindik ezagutu. Geiegi maite zaitut, geiegi, oien eskuetan uzteko. Pasa nere ezkerrera eta ez nere ondotik urrundu. Atzetik ere beste bi badatoz eta. Orain ikusiko dezu nor dan Txori. Suzko armarik ez badakarte, denak baño geiago naiz ni emen.

Atzera begiratu zin. Igesari ematen bazioten ere, atzekoak ogei ta amar bat metrora eserita

geratu itun, bidea ixteko, orrela laukoa bi bina-  
kotan berexten zala. Oso dotore etorri uan ori  
Txorirentzat. Baña aiek ori maleziz egin ziteken,  
Txori aurrekoakin borroka zebillen bitartean nes-  
ka eramateko.

Preparatu uan aurretik zetorren bikoteari go-  
gor egitera.

Zertara zetozen ziur jakin gabe, ez uan ezer-  
tan asiko. Aiei zubi erdia utziz, ezkerretik igaro-  
tzen asi itun. Baña biak aurrean jarri zitzaizkio-  
ken. Txorik ala eskatu zieken:

— Meserez, utzi zaiguzute bidea.

— Astakillo, ez diagu ire bearrik. I baoake.  
Neskatx orren billa gatozik.

Ori entzun zuenean, izutu egin uan neska,  
bakarrik utziko zuelakoan.

— Ez izutu, Malentxo, oraindik Txori bizi  
da ta. Ez al dizut esan lenago?

Indartsua uan Txori eta zerbaiten bearra  
izango zin. Ondoren, ala esan zieken neska-la-  
purrei:

— Bizia maite dit. Ez dit ukatuko. Ortxe,  
nere bizia añaxe, neskatx au ere. Zuen eskuetan  
utzi baño len galduko nitek burua, bere aitari  
ere zin egin zioat, baña ez zuetakoren bat aurre-  
tik eraman gabe. Bizirik maite badezute, utzi ne-  
ri neskatx au bere lekura eramaten.

— Or konpon. Erorrek ikusi.

— Kontuz. Ni galtzen banauk, aurretik nor-  
bait eramango dit gero.

Txori, aiekin izketan ari zala, ez uan oartu atzekoak aurreratu ziranik. Eta, aurretik zetozenak neskaxa arrapatzen asi ziranean, tuntun arek igesari eman zioken eta atzekoak arrapatu.

Txorik, bere amorruz, lenengoa besagañezko ukabilkada batekin begiondoan arrapatu zin, eta, eskuan zeukan pistola zubira jauziz, beko bidera erori ta lepezurra autsita geratu uan.

Bigarrena, pistola artzen asi zanean azpitik gora jota eman zion indarrarekin, lurrari kendu zioken eta zerraldo erori uan. Orduan Txorik, bada ez bada, pistola artu ta beko ibaira bota zin.

Neska ondoan edukiko zuelakoan, atzera begiratu zin ta bi arjelinoak etzeramateken bada?

— Tuntuna aleena! Zergatik nere ondotik urrundu ote da ori? Egin indar, Malentxo, or nauzu ta.

Arri kozkor bat artuta, burrunda zeriola bala bezela belarri ondotik pasa zitzaiokeen bati.

— Utzi zazute neska ori. Bestela, urrengoa buruaren erdian izango dek.

Lau bat metrora, arriak eskuetan zitula ikusi zutenean, biak neska utzi ta igesari eman zioteken.

— Esan ez dizut, bada, nere ondotik ez urruntzeko? Goazen, goazen lenbailen emendik, Malentxo, oiek berriz indartu baño len. Batek, zubitik erori ta lepoa autsi du. Ez det naita egin ta Jainkoak barkatuko al dit. Arri gabeko le-

kuan izan bagiña, zer gertatuko zan? Ni ilko niñutela eta zu eramango ziñuztela. Orretxegatik etorri nai nuen bide ontatik.

Gure bikotea andik ezkutatu baño len, bur-nibidean erori zana bere onera etorri uan eta bazterrean eserita zegoken. Poztu uan Txori. Bat, alare, zubitik erori ta illa geratu uan. Txorik etzeukaken beste igesbiderik: neska galdu edo egin zuena egin.

Malentxo bere lekura eraman zin, bai, ta beste biderik etorri uan Bearrarengana.

Neskak etzin an zer kontatuaren paltik eta Txorik ere ez.

— Egia garbi-garbi esango dizutet, —gurasoak biak batera zeudeken ta—. Kontrabandoa galdu det, baña berriz billatu.

Gertatu zana itz bitan kontatu zienean, ala erantzun ziokeen Bearrak:

— Eskerrik asko, Txori, nere alabarekin egin dekenagatik. Banekiken esku onetan uzten nuela. Ni joan banintz ire lekuan, aita-alabak biak galduko giñun. Berriro ere eskerrik asko, Txori. Alaba ez-ezik, bere gurasoak ere salbatu dituk. Len nik iri egiña ederki ordaindu didak. Baña benetan naigabetzen nauk, sinista nazak. Seme bat aña maite aut eta ia seme deitzeko eskubideak ere banizkin, illa intzana nik salbatu iñudan ta. Milloi batetik bat ez dek i bezelakorik erteten. Banizkin nere asmoak irekin. Berdin bazekit nere alaba ta i benetan maite zera-

tela. Eta, orain ik arengatik egin dekanarengatik, naigabez erotuko dek gaxoa, i joan aizela oartzean. Nere alaba bakarra pozik emango nin eta zuek egingo ziñaten gure ondasun guzien jabe. Nere semetzat pozik artuko iñudan. Orain, ordea, nere amets guziak joan dituk. Emen geratzen baaiz, justizia ire atzetik ibilliko dek. Ori dek gutxiena. Emen arrazoia gallenduko uke. Askoz okerragoak izango dituk ildako orren lagunak. Oiek bai ez ditekela barkatuko. Bazterren batean garbituko iñuteke, eta neretzat nairgaberik aundienetako bat izango uke ori. Obe dek, Txori, etorri intzan bidetik joan. Ire bizia dek lenengo.

— Bear jauna, ez gera iritzi berekoak. Justiziak ez du ikasiko ere or gertatu danaren berri. Oiek, onezkero, illa ixil-ixilik gorde dute eta gorde bearko. Bestela, lenengo berak baituko lituzteke. Oiek legez fuera baitabiltz. Jaberik ez duten txakurrak bezela dira oiek. Ortan ez daukat nik justiziaren beldurrik. Emendik amabi kilometrorra, gutxi gora-beera, erten zaizkigu, eta etziran nik emen ikusitakoak. Bitartean badaude ainbat errixka eta baserri. Zer dakite aiek gu nongoak geran? Garbi-garbi aitortuko dizut: ez daukat ez justiziaren eta ez neska-lapurren beldurrik. Oiek ez dira nere atzetik ibilliko. Urrengoan bai kontuak obeto aterata asiko dirala lanean. Joan bai, joan egingo naiz, an erru gabe oñazetan dauden maiteak askatzera. Baña nere etorri-aldiak egingo ditut, emen nola zabiltzaten jakitera eta zubi artan gertatua aipatzen ote duten ta ea

aren errua norbaíti eransten ote dioten jakin nairik. Baña, Bear jauna, oso atsegiña zait zure aldamera. Asko maite det kabi txiki au. Uxoá, berriz, ain goxoá da, zer esanik ez. Berdin bada- kit bera ere nerekin txoratua dagola. Orain, berriz, askoz geiago. Ondo ikusi du, bera salba- tzeagatik, nere biziá jarri detala. Aiek aren billa baitzetozen; ez nere billa.

— Biotz aundikoa aiz, Txori. Bedeinkatua i uretik atera iñudan arratsa. Kabia ta txoria mai- te badituk, ementxe zeudek. Ederki irabazi iza- nik, ireak dituk. Mundu ontan beste iñoren- tzat izatea baño, iri ematea naiago dit. Ik egin dekana etzegok ordaintzerik. Baña an ere, abi- llen lekuan, dirua bearko dek eta torik diru pi- xar au, biotz-biotzez nere ta emaztearen partetik emana.

— Orain arte ez didazu gaizki ordaindu eta ez det aparteko sari bearrrik. Morroi nago ni emen. Nere egin bearra ondo bete detala beste eskerrik ez det merezi. Iñola ere ezin nezake or- daindu egin zenidan meserea. Kontzientziak ez dit agintzen geiago artzea.

— Ez gaituk, Jaunari eskerrak, diru-eska- sian bizi. Aurrera ere, Jaunak osasunik badigu, ez dek gure etxera mixeririk sartuko. Torik nere ta emaztearen partetik eta ar zak meserez, gu- raso ta alaba, irurok salbatu gaituk eta. Onen- beste merezi dek.

Txorik, azkenean, artu egin zienen. Bazeki- ken berdin guraso on aiek artzea naiago zutela, eta gerora ere etxerako izango itun.

Txori bera ere, laxter etortzeko asmoan bazijoan ere, ainbeste maite ta on egin zioten guraso on aiek ezin agurturik zebilleken.

— Banoa, baña ez betiko. Urtea bukatu baño len, jiratxoren bat egingo det nik onera, alkarren berri ikastera. Oroitz goxoak baitira nik emendik daramazkidanak. Eta Malentxori esaiozu, lasai egoteko, etorriko naizela bere aldame-nera, ez naizela asarretuta igesi joan.

Amak seme bati bezela laztan eman zioken, eta, Bearrari esku emanaz, bukatu zin nolabait aiekikoa.



## ARROBIKO LANGILLEA

Atsekabez baña azkenean urrundu uan andik Txori. Ez iñori txarrik egin ziolako. Bere andre-gai maitagarri ura salbatu zin, bere bizia arraixkatuz. Guraso zuzen aien bizi-poza uraxe uan. Aien zoriona ere iritxi zin. Neskatz ura galdu baltz, gurasoak ere larri ibilliko itun. Bearrak zionez, aren begiakin ikusten ziteken ta.

Bizkarrean pardela, zitun traste pixarrak an zekazkiken. Lotu ta indarrean espetxera daramaten bat bezela, bere ongille maitagarri aiek mal-kotsu atzetik begira zitula, beren seme bat gal-tzen balute bezela, ainbesteraño maite ziteken, urrundu uan aien aurretik.

Nora joan bear zin orain? Non ezkutatuko uan? Bere sorterrian iltzat zeukateken, illetak ere egin zizkioteken beñepin ta.

Baña denen iritzia ori al uan? Arkaitz gañean bertan iltzeko asmoan inguratu zuten aiek, orrela pentsatzen al ziteken? Bera Txori zala ja-

kiten zutenean, zer etzioteken egingo? Eta ain errex izango uan aren berri jakiten?

Aurrez-aurre etzeukaken bien beldurrik. Pelix iltzen ikusi zitun bi aiengatik ez beñepin. Uste gabean atzetik erasoko zioteken, or zegoken beretzat arraixku gaixtoa.

Prantzia'n geratzen bazan ere, etzeukaken alderdi ohea. Justizia bere atzetik asiko uan, eta bera kontrabandoan sartua. Etziteken an iñon bere agiririk billatuko. Aien atzaparretatik erteten ez uan errexia izango.

Illaren lagunak, berriz, ez itun lo egongo. Bere aztarrenen billa saiaturko itun, eta, ikasten bazuten, mendi-bazterren batean, berun zorrotzez josia, saien janari utziko ziteken.

An ezaguna uan. Orregatik, arraixku txarreko lekua. Españi alde au seguruago iruditu zitzaiokeen, Prantzi alde baño. An lan koxkor bat bazeukaken burutu bearra. Orduan joango uan Prantzi aldera.

Len esan degun bezela, pardel koxkorra bizkarrean, jo ta igesi dijoan txakur baten gisa, baño biotza garbi, egin zuenaren kezka txarrik gabe, Bidaso'z onuntz sartu uan, lan egin ta bere asmoak ondo ausnartuz.

Asi berriak itun bide zabal bat egiteko lanak, eta, txuxenean ostatura baño len, alkateak erakutsi zion arrobi aundi artara jo zin.

Ostatutik bertan zeukateken ura. Bidegiñan asten baziran, bidea añean langilleak ere aurrera

joan bearko ziteken eta ori etzitzaioķen komeni. Latzagoa izango bazan ere, naiago zin arrobiko lana. Au, bideko lanak irauten zuten arteko bazin, ta leku berean. Orregatik joan uan arro-bira.

Eskatu zueneko, mutil gazte modu ura ikusita, langille-buru egiten zuenak, eztabaidarik gabe baietza eman zioķen.

— Ator, ator. I bezelako gazte sasoikoentzat dek arrobiko lana.

Astelenean joatekotan geratu uan. Antonio Alzuyet izenarekin artu ziteken. Billa zak Antonio Alzuyet ori nor dan.

Andik txuxenean ostatura etorri uan. Egundoko iskanbil ta antolaketak nabaitu zizkin an. Jai aundiren bat ospatzeko moldaketak. Etxeko seme zarrenaren eztaiak zirala esan zioteken.

— Etzegok gaizki. Nere illetara ez niñun etorri. Baña orra, uste gabean, anai zarrenaren eztaiak arrapatu. Ez dit noski parte artzerik izango. Baña, ikusi bederenik, ikusiko al dizkit —zioķen berekiko zoriontsu.

Alako atsedeen-aldi batean, bere gurasoak batera alkarrekin arrapatu zizkin eta egin zioķen apupillo-lekuaren eskea.

Arrobi aundi artan lanean asi zala, oso tirabidean erortzen zitzaiola ta lekurik bazuten beñepin.

— Barkatu, gazte. Ostatuan etzeukagu lekurik. Aspalditik dena gañezka zegok. Baña, ber-

din bazaik, etxean bai. Ez dek gela oek bezin zabala, baña ik ez dakark traste askorik. Erakutsiko dit. Ator nerekin.

Bere amarekin batera joan uan eta erakutsi zioken, len garai batean berak edukitako gela txiki txukun ura bera.

— Etxeko andre, gaztea ikusten banauzu ere, ala naiz: nik pakea maite det eta ez ostatuko iskanbilla. Biotz-biotzez eskerrik asko, etxeko andre. Ez dizutet enbarazu aundirik emango. Nere bearrean arkitzen bazerate, lagundu, al badet. Ni ez naiz jauregietan jaio ta azia. Baserritarra naiz ta badakit txoko oen berri. Txoria bezin alai biziko naiz ni emen.

— Eskerrik asko, gazte. Arkitu giñezkek agian ire bearrean ere. Ez dek beti atsegin izaten etxe oetan eta gogoan edukiko diagu ire borondatezko eskeña. Txoria bezin alai esan dekanean, oroitu nauk denak Txori esaten zioten gure bigarren seme maite artaz. Sei urte dek palta zai-gula ta geroztik ez dik iñork lorik egin gela ontan. I augu lenengoa. Beko errekan an zegok gurutzea. Sei urte ontan arrapatu gabe dabilzan lapurrak il ziteken. Une artan bertan, txori-kabi arrapatzen an uan gure seme maite ori. Geroztik ez diagu aren aztarrenik. Etzekigu illa dan ala bizi dan. Denak iltzat zeukatek. Illetak ere egin genizkioken. Lapurrak arrapatu ta, il ondoren, karobian kixkalia izango dala ziotek. Alkate zikin orrek beraren aitari ezarri nai zioken semearen eriotza ere. Il edo bizi, nonbait azalduko baltiz...

Eta negarrari eman zioken. Etzekit Txorik an bertan, ama besarkatuz, nola etzuen oiu egin:

— Ama, ez negarrik egin. Txori ez da illa. Ni nauzu Txori.

Baña etzitzaioken oraindik komeni. Eta, berak ere malkoak txukatuz, ala esan zioken:

— Naigabeen laguntzen dizut. Olakoxea da mundua.

— Bai, gazte, bai. Arentzat bizitza ontako egunak ez itun luzeak izan.

Eta, Txori bere trasteakin gelan utzirik, bere lanetara joan uan.

Txori xamurtua geratu uan. Etziteken gutxi maite, sei urteren buruan ura oroitu utsarekin negarrari eman zioken ta.

Etorriko uan nor zan esateko garaia. Baña, bitartean, Antonio Alzuyet'en izenpean egin bear zin lana, gauzak garbitu bitarte. Eta bere maiteei izen ona biurtu ere bai.

Urrengo eguna aste erdiko jaia uan eta orduan zizkiteken eztaiak. Txorik etzizkin galdu nai. An uan txintxo asko elizan. Erteeran, esku emanaz zoriondu zizkin ezkonberriak. Berak bazekiken aiek nor ziran; aiek ez, ordea, au. Andik txuxenean ostatura etorri uan.

Ostatuan ziteken bazkaria. Merkeago izateaz gañera, non billatu leku paketsuagorik? Apupilloak ere bazkaritara deitu zizkiteken. Beste gañerakoan, denak senide artekoak itun. Pake-

pakean, iñork nor zan etzekila, Txorik bere anai zarrenaren eztaiak ospatu zizkin.

Ezkonberriak, bein bazkaria bukatutakoan, arratsalde erdi aldera, eztaiondo on bat igarotze-  
ra joan eta bukatu itun ango iskanbillak.

Urrengo astelenean asi uan lanean arrobian. Illunetik illunera lan egiten ziteken orduan, sos pixar batzuk irabazteko pozean, eta jendea ez uan oartu ere, bibote aundi ura ostatu artan apupillo zegonik.

Igandea etorri zanean, an azaldu uan, Antoni ta etxeko alabei lagunduz, bere arrebak zizkin ta.

Joxek zer ikusi gutxi zeukaken tabernako lanetan. Arek baratzako ta ukulluko lana zeramakiken eta gutxi azaltzen uan ostatuan.

Etxeko semea balitz bezela zebileken Txori, bear zanean lagunduz, batez ere puska astunak ziranean.

Bestela, alkate anaiengana joango uan. Aiek andik aldegiten zuten arte, pake-pakean musean jardungo zin.

Antoni oartu uan aien adiskide miña, itxuraz beñepin, egin zala, eta etzitzaioken ondo iruditzen. Bein ala esan zioken:

— Ondo ezagutzen al dituk oiek?

— Bai, Antoni. Zuk uste dezun baño obeto. Berak esanta, denaren berri badakit. Baña oraindik obeto ezagutu nai ditut. Ez nabil oie-

kin, oien lagun egin naizelako. Beti lapur-kontuan ari zaizkit. Oek dakiten guzia atera erazi nai diet. Ea lapur ori bein betiko arrapatzen degun. Beti, lapurra etxe ontakoa dala esaten didate, eta Joxe zure senarrak aspaldian urkamen-dira eramana bear lukela. Nik, berriz, ez det sinisten. Oiek gorrotoan zauzkate eta orregatik ari dira orrela.

— Gorrotoan, jakiña. Ostatu au nai litekek, ta gu, berriz, ez gaudek uzteko. Bere lanak eta ixtilluak badizkik onek. Baña etzeukagu ezin bizirik. Sendi guziak, iñora joan gabe, etxean billatzen diagu gañera lana.

— Ori ez nekin. Orain gauzak obeto uler-tzen ditut. «I ez aiz lanera etorri; polizi biali aute i onera» esan zidan lengoan alkateak. «Eta zuei zer? —erantzun nien—. Polizia banintz, on besterik ez nizuteke egingo. Noiznai diru-ebasteak badirala; alkateari egundoko buru-austek ekartzen dizkiola; erriaren izen ona ere orrek zikintzen duela, zerok askotan esan didazute. Ez nizuteke on gutxi egingo, zein dan arrapatuko banu.» Polizia banintz, lenengo berak poztu bear luteke, eta neri lagundu egia garbitzen. Baña orren beldurrak daudela uste det. Ezkutukoren bat bada oien artean. Nik, beñepin, dena entzun ta gogoan artzen det. Ikusiko degu zer ateratzen dan.

Txori illunetik illunera lanean ari uan. Ostatuan pakea zegoken. Baña alako batean, *zapla!*, beste lapurreta. Oraingoan ere egundoko putzua.

Larunbata uan. Urrengo egunean, ura iskanbilla ostatuan! Alkateak erotua zirudiken. Ea zer egiten zuen epailleak, lapurrak zein ziran jakin ta ez zigortzeko. Donosti'ra joko zuela, ez bazuen Joxe etxeko nagusia lotzen.

— Kontuz, alkate jauna. Jakin gabe ez dek iñoren izen onik orrela belzten. Gero besteren bat arrapatzen bada, «nik ori zala uste nin», orrek ez dik balio. Lenbizi arrapatu egin bear diagu eta, dana dala, orduan itzegin.

— Bai. I oiekin ondo etortzen aiz eta itxu-itxuan oien alde ago.

— Eta i, gaizki agolako al abil sendi eder au ondatu nairik? Arrapatu zagun lenbizi, ta orduan itz egingo diagu.

Joxe-ta suminduak zeudeken, bi anaiei bertan muturrak austekotan. Baña Txorik apaldu zizkin:

— Itxogin lasai. Gutxiena uste danean aizkatzen omen da erbia. Erderazko esaera batek ala dio. Emen ere laxter aizkatuko dala uste det.



## URTE BETETZEA

Azkeneko lapurreta egin ta urrengo igandean, Txorik ogei ta bi urte betetzen zizkin. Ostatuan zeuden ta berekin arrobian lan egiten zuten batzuekin, apari on bat egitea pentsatu zin. Ollo jate bat alegia.

Bazekiken ollo eder ta bikañak non zeuden: alkatearen ollotegian. Bost ederrenexkoak ari ostu zizkioken, eskatzen bazizkion bazekiken etzizkiola emango ta, jan ondorean ordaintzekotan. Lagunak itun eta orregatik ez al uan asarretuko. Asarretzen bazan, berriz, berak geiena galduko zin.

Erramona xarra zegoken sukalde-zai oraindik, eta ari ekarri zizkioken, baña ondo lumatuak, lanak errexteko. Alkateari ebatsi zizkiola esan ziokeen gañera.

Gero Antoniri, ura uan etxeko andrea ta, nola Erramonari bost ollo ekarri zizkion, igandean bederatzia alde ortan apaltzeko. Egun or-

tan ogei ta bi urte betetzen zitula ta bere lagun batzuekin egun ori ospatzeko.

— Zorionak, motell. Ez daukak adin txarra. Nere ogei ta bi urteak aspaldi joan itun. Egun on bat igaro dezakala. Biotz-biotzez orixe opa dit.

— Eskerrik asko, Antoni. Ni ere, ogei ta bira igo naizen baño lenago jetxiko naiz berrogei ta laura.

Alkatea ta bere anaia ere deitu zizkin. Sei edo zazpi bilduko itun.

Alkateak, olloen berri ikasi zuenean, epaillea deitu zin. Baña Txoriren jakiñean. Berak jakingo zin zergatik. Tripazai xamarra omen uan epaille ori ta.

Iritxi uan igande-illunabarra. Deituak, denak bildu itun banaka-banaka. Epaillea ere zer esanik ez. Denak zorionak eman zizkioteken bere urte betetzearengatik, eta pake-pakean eseri itun. Txorik, antz eman zioken alkatea serio zegola, eta ondo zekiken zergatik.

Egundoko kazuelkada atera ziteken maiera. Jende ospetsuak baitziran tartean, bakoitzari azpillatxo bana jarri zieken, nai zuten puska kazuelatik artu ta berex jateko. An asi itun alkarren leian, beren zaku uts aietan zeñek geiago sartu. Zer jana ugari bazan, edaritik ere baziteken aukera.

Alkatea, bein txurrut pixka bat egiten zuenean, gaiztoa geratzen omen uan, eta bereala

asi omen uan bere betiko leloan, lapur-kontuan alegia.

— Zer egiten dek, epaille jauna? Etxe au lapurrez betea zegok.

— Ere denboran egirik esan badek, orixe bai benetako egia dala —erantzun zioken Txorik.

— Bai, ta i lenengoa.

— Sei urte oetan egin diran lapurretak, nik egin ote ditut?

— Oek etzekit. Baña orain jaten ari geran bost ollo eder auek bai.

— Arrazoi dek, motell. Ez dit ukatuko. Ik aukera daukak eta ire aukeratik ekarri dizkit. Lagunak gaituk eta lagun bezela. Baña ordaintzekotan. Eskatu banizkin, ez izkidan emango ta.

— Epaille jauna, ez al dik orrek zigorrik merezi?

— Ortarako deitu al didak? Ez dezute itz baten lekurik, gizona. Beti lapurreta-kontuan —erantzun zioken asarre xamar epailleak.

— Lasai, epaille jauna, gaur izugarriak gertatu bear dute emen ta —esan zioken Txorik belarrira, ondoan zeukaken ta.

— Asi al zerate Joxe ta epaille xarra bezela? Justizia, justizia emen. Bibote aundi ollo-lapur orrek merezi dik bere zigorra.

— Naiago nitek emengo lapurrak arrapatuko baitu —erantzun zioken serio xamar epailleak.

— Amaika bider esan dit nor diran: Joxe lapurra ta ire aita babeslea.

— Gezurra zirudik erriko alkatea i izateak. Ezi gabeko sasi-ijito bat dirudik, ezer jakin gabe gizonen izen ona belzten ari baaiz —erantzun zioken Txorik.

— Jakin gabe? Lengo larunbatean, lapurreta egin zanean, Joxe etzegoken emen.

— Ezta i ere. Orregatik, i al aiz lapurra?

— Ik ordain itzik olloak, bai, ta orduan konponduko gaituk.

— Ik epaillea ni lapurtzat salatzeko deitu dek noski. Baña etzetik ez ote aizen erorren sarean eroriko.

Alkateak, arritu xamarra:

— Zer esan nai didak orrekin? Ni garbi negok. Etzeukat epailleekin zer ikusirik.

— Egia ote diok gero? Kontzientziak ala esaten al dik?

— Emen berriketa gutxi eta benga ollo eder oiek balio dutena.

— Bai. Ollo ederrak dituk eta zar xamarrak. Orregatik ebatsi dizkit. Asko ikusiak dituk eta asko zekitek. Bostak ezin ordainduko dizkit. Iru-rekin etzegok gaizki. Zuek bana jan baitezute.

— Dena, dena. Eta, alkatea naizen aldetik, multa koxkor bat ere jarriko dit. Lapurrak ori dena merezi ditek.

— Ai, zer laguna neukana! Nik bost olloren-gatik multa merezi badet, egin ditukenengatik zer ez ote merezi ik?

— Alkate jaunari errespeto pixar bat bear zaiok. Ez denen aurrean zorretan dagola salatu. Epaille jauna, justizia!

— Ez diok ik askorik etxe ontako erru gabeko nagusiari. Eta, justizia eskatzen badek, bete-betean laxter izango dek ori ere.

— Nola dakik erru gabea dala?

Gero ta larriago, onela zioken berekiko alkateak:

— Nor ote da bibote aundi au?

Onela erantzun zioken Txorik:

— Jakingo ez diat, bada?

Eta beatzarekin apuntatuz:

— Zuek, bi anaiak, baitzerate emengo gizoniltzalle lapurrak.

Egundoko zarrada egin zin bibote aundia-  
ren salaketak, begira zegon jendearen artean.  
Bai bi anaien biotzean ere. Baña, maltzur-mal-  
tzur, ala erantzun zioken alkateak:

— A, gizarajoa! Mozkor-mozkor egiña ago.  
Ez dakik zer esaten dekan ere. Prantzi'ko ar-  
doak baño indar geiago dik emengoak, motell.  
Obe dek ixilik egon.

— Ni oraindik ez nauk mozkortu. Prantzi'-  
ko ardoari bezelaxe artzen zioat emengoari ere

neurria. Eta, berriz entzun nai badezute, zuek biak zerate orko lapur ta gizon-iltzalleak. Jakin dezala garbi epailleak.

— Erotu al aiz? Zer esaten ari aizen bai al dakik? Oraintxe bertan artu bear dituk epelak, eta gero gerokoak.

Jauzi batean erdira erten uan Txori.

— Zuek neri epelak eman? Gauza bazerate, atozte. Etzidak biengatik ajolik. Laxter jarriko dizkizutet anak buruaren lekuan. Ez nauzute Pelix bezela arrapatuko.

Ostatuko jende guzia begira ta entzuten zegoken, bibote aundi aretzaz errukiturik, mozkortu ta zer esaten zuen etzekilakoan. Baña ez uan ori denen iritzia. Antonik-eta, ala zioteken:

— Asko daki orrek. Nor ote degu ori?

— Epaille jauna, etzegok ortarako eskubiderik. Ori, gure izen ona belzten ari dek.

— Egon lasai. Gezurretan ari bada, bereak artuko dizkik.

— Ez, epaille jauna. Ez naiz gezurretan ari. Nik banekin lapurrak etxe ontakoa bear zuela izan, edo etxe ontakoaren bitartez egiten zitula lapurretak.

— Dakiken guzia ori al dek? Orrenbeste guk ere bagenekiken. Larunbatean, lapurreta egin zanean, Joxe etzegoken emen.

— Ori lenago ere esan dek. Baña ez zuek ere. Utzi neri itzegiten eta, gezurretan ari banaiz,

eman merezi detan zigorra. Larunbatean ni maiean negoken, bazter ortan. Tratalaria etzekit arroa edo ajolagabea zan. Egundoko diru-putzua azaldu zin. Nik ikusi nioken. Baña geiagok ere bai. Nik zeleta txiki bat egin nioken bati. Andik bereala erten uan eta txuxen alkatearen etxera artu zin.

— Orrekin zer esan nai diguk?

— Itxogin lasai. Ni orduan, or galdutako Txori gizarajo ura bezela, beko erreka-bazterrean ezkutatu niñun. Andik bereala, bi gizon, beko ollotegi ondora joan ta atxur banarekin saioxka txiki bat egin ondoren, bazterreko txabola txiki batera sartu itun. Amar bat minutu geroxeago, arritu niñun: arrunt antzaldatuak erten itun txabolatik, buzo beltz banarekin, arpegia ondo estalia, eta guanteakin gañera. Komeni zitzaidan ondo ikustea, ea uste nitunak ote ziran. Lapur-bidean sasi atzean ezkutatu itun. Txistuka tratalari ero ura urbildu zanean, bat aurrera erten zitzaiokeen. Arekin eztabaidaka ari zala, bestiak atzetik pistola txiki bat jarri zioken garrondoan, eta an bota zizkin gizarajoak bere diruak. Aiek bildu ta laxterka batean ezkutatu itun. Gero, ollotegiko txabolara sartuta, berriz ere antzaldatuak, gizon berriak erten itun. Lanean jardunta bezela biak etxera. Gezurra al dek ori?

— Nor dek ik dioken bitarteko ori?

— Nork esan dizute ollo oek nik ostu ni-tuela?

— Erramonak, ik kontatu omen ioken ta.

— Orixe bera. Diruak ikusi ondoren joan uan zuen etxera.

Ostatukoak arrituta zeudeken. Ez ote zan gero Txori beren semea izango?

— Gezurra dek ori.

— Galdetu berari. Nik lendik banekiken lapurra xardea zala eta bere lagunak ezker aldera egiten zuela erren.

— Nor demonio augu, lapurra xardea zala esateko? Ea erori augun lapurra.

— Pelix il zenutenean, garbi asko oiu egin zin: «Xarde madarikatua! I al aiz emengo lapurra?» Orregatik joan aiz guanteakin, lapurtuak ezagutzeko beldurrak. Galdetu, epaille jauna, Erramonari. Dena garbi kontatuko dizu. Eta ikusi beko ollotegia. An billatuko dituzu lapurretan ibillitako trasteak.

— Gezurti madarikatua! Esaiguk bein betiko nor aizen —zioken gorrotoz ta lotsatua alkatteak.

— Oraindik orren itxu al zaudete? Zuek Pelix il zenutenean, zugaitz gañetik begira zegona, eta aitak il ta karobian kixkali zuena, piztu ta zuzentasuna eskatzera etorria.

— Zein? Txori? —oiuka zoramenez galdetu zin ostatuko jendeak.

— Uraxe ta bera.

— Madarikatua aleena! Obe genin, orduan il baiñugu.



— Saiatuaren paltan etziñaten geratu.

Igesi abiatu itun biak, baña laxter erori uan jendea aien gañera. Orain igesi egin! Bai ederki eman ere!

— Orain, epaille jauna, zure esku dago dena.

— Eskerrik asko, Txori. Banekiken lapurrak olakoren batzuk izango zirala.

Bi anaiak epaillearen eskuetan geratu itun. Txori, berriz, zai zeuzkan bereetara joan. Banaka-banaka besarkatu itun denak.

— Orra sei urte auetan iltzat geneukan semea azaldu —zioken pozez aitak.

— Orrenbeste denboran gure etxean bizi ta anairik ezagutu ez —zioteken bere anai-arrebak—. Izan ere, bibote aundi oiekin...

— Utzi, utzi bibote aundi oei pakean. Etzaizkit gaizki etorri.

— Zergatik ez diguk len esan?

— Ez dakizute zer suprikizun izan dan au neretzat. Nere guraso ta anai-arreben artean ibilita, arrotz bat bezela bizi bear. Lengo nere gela txiki ura erakutsi zenidanean, ama, sei urte aietan aztarrenik etzenuten zure bigarren seme Txori maitearen gela zala eta geroztik ni nintzala an lenengo sartua, eta negarrari eman zenionean, ez dakit nola dena garbi ez nizun esan. Baña etzitzaidan komeni. Oiek oartzen baziran, bazterren batean garbituko niñuten.

— Ondo egiña zegok. Ik atera bear itun erorren kontuan —zioken aitak—. Emen gertuko aiz noski orain?

— Lanak bukatu arte bai. Baña an badet kabi polit bat. Eta bertako txoria, alaba, oso goxo ta atsegiña beñepin, eta bere gurasoak, biotza besterik ez dutenak, ez ditut aiek galdu nai. Baña emendik bertan dago, onerako atzera-aurrera egun batean egiten det eta. Baña or barruan kontatuko degu dena.

— Bejondeikela, seme. Ez diguk nolanaiko pakea ekarri. Au bai dala illa piztea!

## AMAIA


## ORAINDAÑOKO LIBURUAK

1. R. Artola: Sagardoaren Graziya (*Aitua*).
2. M. Soroa: Gabon, Au ostatubal, Anton Kaiku (*Aitua*).
3. F. Apalategi: Euskal mutillak armetan, I. (*Aitua*).
4. Pepe Artola: Ustez laguna detan. (*Aitua*).
5. P. M. Urruzuno: Euskalerritik zerura. (*Aitua*).
6. T. Alzaga: Ramuntxo. (*Aitua*).
7. R. Azkarate: Galtzaundi. (*Aitua*).
8. A. Apaolaza: Patxiko Txerren. (*Aitua*).
9. B. Iraola: Oroitzak. (*Aitua*).
10. Errege eguneko bertso sayoa. (*Aitua*).
11. P. Larzabal: Bordaxuri. (*Aitua*).
12. Bilintx: Bertso ta lan guziak. (*Aitua*).
13. M. Izeta: Dirua galgarri. (*Aitua*).
14. P. Larzabal: Iru ziren. (*Aitua*).
15. Ezkontza galdutako bertsoak, I. (*Aitua*).
16. A. M.<sup>a</sup> Zabala: Gabon gau bat. (*Aitua*).
17. A. M.<sup>a</sup> Labayen: Malentxo alargun! (*Aitua*).
- 18-19. A. Zavala: Txirrita. (*Aitua*).
20. F. Goñi: Lurdesko gertaerak. (*Aitua*).
21. P. Larzabal: Herriko bozak. (*Aitua*).
22. Bertsolarien txapelketa (30-XII-1962). (*Aitua*).
23. Aizkolariak. (*Aitua*).
24. F. Imaz: Bertso guziak. (*Aitua*).

25. A. P. Iturriaga: Jolasak. (*Aitua*).
26. A. M.<sup>a</sup> Zabala, A. Larraitz, Mir: Periyaren zala-partak. (*Aitua*).
27. Azpeitiko Premiyoaren bertsoak. (*Aitua*).
28. B. A. Mogel: Ipui onak. (*Aitua*).
29. T. Alzaga: Burruntziya. (*Aitua*).
30. G. Anduaga: Egunsentiko txoria. (*Aitua*).
31. M. Soroa: Baratzen. (*Aitua*).
32. M. Elicegui, A. Zavala: Pello Errotaren bizitza. (*Aitua*).
33. M. Elizegui, A. Zavala: Pello Errotak jarritako bertsoak. (*Aitua*).
34. P. Larzabal: Senpere-n gertatua. (*Aitua*).
- 35-36. J. V. de Echagaray: Festara. (*Aitua*).
37. A. Cardaberaz: Euskeraren berri onak. (*Aitua*).
38. S. Salaverria: Neronek tirako nizkin. (*Aitua*).
39. Bertsolariak: Amar urteko bertso-paperak. (*Aitua*).
- 40-41. J. R. Zubillaga: Lardasketa. (*Aitua*).
42. Uztapide: Noizbait. (*Aitua*).
43. Bertsolari-txapelketa. (1-I-1965). (*Aitua*).
44. P. Larzabal: Hilla esposatu. (*Aitua*).
- 45-46. J. M. Satrustegui: Bordel bertsolaria. (*Aitua*).
47. P. M. Urruzuno: Iru ziri. (*Aitua*).
48. P. Barrutia, Sor Luisa, X. Munibe: Teatro zaarra. (*Aitua*).
- 49-50. A. Zavala: Pello Errotaren itzala. (*Aitua*).
51. P. M. Urruzuno: Ur-zale baten ipuiak. (*Aitua*).
- 52-53. G. Anduaga: Bertso-bilduma.
54. A. Zavala: Pernando Amezketarra bertsolaria. (*Aitua*).
55. Basarri: Laugarren txinpartak. (*Aitua*).
56. A. Zavala: Udarregi bertsolaria. (*Aitua*).
- 57-58. C. Beobide: Asis'ko Lorea. (*Aitua*).
59. A. Zavala: Axentxio Txanka bertsolaria.
60. A. Zavala: Errikotxia, Itxaspe ta beste zenbait bertsolari. (*Aitua*).
61. A. Zavala: Gaztelu bertsolaria. (*Aitua*).
62. A. Zavala: Zarautz'ko Zaldubi bertsolaria.
- 63-64. A. Zavala: Juan eta Pello Zabaleta bertsolariak. (*Aitua*).
65. J. M. Satrustegui: Luzaide'ko kantiak. (*Aitua*).
66. A. Zavala: Iru bertsolari. (*Aitua*).
67. Bertsolari-txapelketa (11-VI-1967). (*Aitua*).
- 68-69-70. A. Zavala: Alzo'ko Imaz bertsolaria.
- 71-72. A. Iturriaga: Ipuiak. (*Aitua*).

73. *A. Zavala*: Iru anai bertsolari. (*Aitua*).
- 74-75. *A. Zavala*: Errenteria'ko bertsolari zaarrak.
76. *A. Zavala*: Alza'ko bertsolari zaarrak.
- 77-78. *A. Zavala*: Paulo Yanzi ta bere lagunen bertsoak. (*Aitua*.)
- 79-80-81. *A. Zavala*: Lexo bertsolaria.
82. *A. Zavala*: Juan Maria Zubizarreta bertsolaria. (*Aitua*.)
83. *A. Zavala*: Motza, Zulaika ta Ugalde bertsolariak. (*Aitua*.)
84. *M. Matxain*: Uste gabeen. (*Aitua*).
85. *Xalbador*: Ezin bertzean. (*Aitua*.)
- 86-87. *A. Zavala*: F. Iturzaeta bertsolaria.
- 88-89-90. *A. Zavala*: Xenpelar bertsolaria. (*Aitua*.)
91. *A. Zavala*: Txapel bertsolaria. (*Aitua*.)
92. *I. Alkain*. - *A. Zavala*: Alkain aita-semeak. (*Aitua*.)
93. *A. Zavala*: Zubeltzu ta Saikola bertsolariak. (*Aitua*.)
94. *A. Zavala*: Atano ta Estrada bertsolariak. (*Aitua*.)
- 95-96. *A. Zavala*: Azkoitia'ko zenbait bertsolari.
97. *A. Zavala*: Bidasoa aldeko bost bertsolari. (*Aitua*.)
- 98-99. *Inozentzio Olea*: Goierriko lorak.
100. *Manuel Lasarte*: Bertso-mordoxka. (*Aitua*.)
- 101-102. *A. Zavala*: Txirritaren bertsoak. I. (*Aitua*.)
- 103-104. *A. Zavala*: Txirritaren bertsoak. II. (*Aitua*.)
105. *José Inazio Etxeberria*: Mendi-gañetik.
106. *A. Zavala*: Pastor Izuela. - Ezkioko ta Segurako itxuak. (*Aitua*.)
107. *A. Zavala*: Zepai bertsolaria. (*Aitua*.)
108. *Mattin*: Ahal dena. (*Aitua*.)
- 109-110. *P. Lafitte*: Mañex Etchamendy bertsolaria.
111. *Bertsolariak*: Xenpelar-aria, 1972. (*Aitua*.)
112. *Basarri*: Sortu zaizkidanak. (*Aitua*.)
113. *P. M. Urruzuno*: Sasiletrau baten ziria.
114. *A. Zavala*: Kaskazuri bertsolaria.
115. *A. Zavala*: Larraburu, Lexoti ta Balentin bertsolariak. (*Aitua*.)
116. *A. Zavala*: Oiartzungo bost bertsolari. (*Aitua*.)
- 117-118. *Balendin Enbeita*: Nere apurra.
119. *A. Zavala*: Oiartzungo beste lau bertsolari. (*Aitua*.)
- 120-121-122. *A. Zavala*: Mendaro Txirristaka.
- 123-124-125. *A. Zavala*: Zapirain anaiak.

126. *A. Zavala*: Ustu ezin zan ganbara.
127. *M. Arozamena*: Nere aldia.
128. *A. Zavala*: Amodiozko penak bertso berrietan.
129. *A. Zavala*: Afrika'ko gerra (1859-1860).
130. *A. Zavala*: Patxi Erauskin bertsolaria (I).
131. *A. Zavala*: Patxi Erauskin bertsolaria (II).
132. *A. Zavala*: Patxi Erauskin bertsolaria (III).
133. *A. Zavala*: Arrantzaleen bizitza.
134. *J. M. Arrizabalo - A. Zavala*: Baso-mutillak.
135. *A. Zavala*: Jaioak bizi nai.
136. *A. Zavala*: Noe'ren ontzia.
- 137-138. *Ataño*: Txantxangorri kantaria.
139. *A. Zavala*: Soldaduzkako bertsoak.
140. *A. Zavala*: Nekazariak bai miseriak.
141. *Bertsolariak*: Bertsolari-Txapelketa Nagusia (Donostia, 1980-I-6).
142. *A. Zavala*: Txabolategi, Elkoro eta Leunda bertsolariak.
143. *J. J. Irazusta*: Nork bere bidea (I).
144. *J. J. Irazusta*: Nork bere bidea (II).
145. *J. J. Irazusta*: Nork bere bidea (III).
146. *A. Zavala*: Berridi eta Kuxkullu bertsolariak.
147. *Ataño*: Txori.



AUSPOA  
LIBURUTEGIA